


Eskia, neguko kirolen erregina



IÑAUTERIAK:

Leitza, Ituren, Zubieta, Sunbilla...

Urtea hasi berri dugun honetan urtero-urtero errepikatzen diren besta egun eder horiek heldu zaizkigu: iñauteriak.

Sunbillan 24tik 26ra, Leitza 25etik 28ra, Zubieta-Iturenen berriz, 27 eta 28an.

Abudo edo beranduxeago, gure auzo eta herriak musika, dantza, karroza eta mozorroz beteak ikusiko ditugu.

6 Irizia: Doneztebeko etxebizitza zainduak

Joan den urteko ekainean inauguratu ziren 24 pisuetatik 5 berterik ez daude okupatuak.

29 Kirolizketa: Patrizia Leitza elizondoko kirolariak Zanbeze erreka jautsieraren berri eman digu

27 Kultura: Atxuriatik Larrunerat Kultur hilabetea

Ipuin lehiaketan sarituak eta antolatzaileen balorazioa.

ttipi-ttapa
interneten

Hamabostero paperean
eta mundu zabaleko
ordenagailuetan

ZURETZAKO PRESTATUA **IASP**

* Merkealdia stock-eko autoentzat hilaibete bukatuta arte. Eza zail gehitu beste promozioei. BEZA, garraraia eta marrikulatzeko zerga sarturik daude.



65 ZP. Diesel. Lagunduriko direkzioa. Kristal-jasogailu elektrikoak. Itxitura zentralizatua urruneko agintearekin. Irrati-kaseta ateragarria aginte-sateliteduna bolante azpian. Lainokontrako faroak. Segurtasun uhalek aurreteinkatzailea aitzineko jarlekuetan. Martxan jarri aurreko sistema elektronikoa. Kolpeleungailua karrozeriaren kolorekoa.

ERAMAZAZU GUZTIA
CLIO RN 1.9 Diesel 5 atekoa
1.595.000 PTATAN*



RENAULT
 GIDATZEKO
 PLAZERRA

PEDRO GARMENDIA, S.A.
 Errep. z/g - Tfnoa.: 58 04 31 - ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN

Leitzako Errep. 1 Km.a. - Tfnoa. 45 02 82 - DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.

Irun - Iruñia Errep. Tfnoa.: 63 06 21 - BERA

RENAULT **efp**

Mondeo berria.
 Sentimenendako
 plazerra.

ZALAIN MOTOR

© 948.631157 • 908.778023
 Ubelaldea - BERA

TELLETXEA TAILERRAK

© 948.450667
 Leitzako bidea - DONEZTEBE

DATUAK.....

❖ *Inaki Pikabea duela 21 urte sortu zen Beran eta bertan bizi da gaur egun ere.*

❖ *Iazko abenduan Argentinan egondu zen erakusketa batzuk egiten eta lehenagotik ere Estatu Batuetan eta Parisen izana da sukalde lanetan.*

❖ *Sukaldeaz aparte laisterka ibiltzea da bere afizio haundienetako bat.*

❖ *1994ean Euskal Herriko eskolarteko sukaldaritzaren txapelketa irabazi zuen.*

❖ *Goi sukaldaritzara dedikatzea baino nahiago du orain arte bezala segitzea, sukaldeko lana bertze gauzekin konbinatuz.*

✎ **Iñaki PIKABEA** *Zalain jatetxeko sukaldaria*

“Hemen baino arrakasta gehiago dugu sukaldariok atzerrian”

ZEIN IZAN DIRA ZURE IKASKETAK SUKALDARITZA MAILAN?

Lehenbiziko Irizar-ekin bi urtez egondu nintzen bere eskolan ikasten eta aldiberean zenbait jatetxe ezagunetan praktikak egiten. Arzak, Alejandro, Hidalgo eta Akelarren. Praktika hauek gauez egiten genituen, langile arruntek bezala lan egiten genuen baina kontraturik gabe eta kobratu gabe. Ordu aunitz lan egin arren ez dizute batera eskerronik agertzen eta horrek jendea erretzen du.

GAUR EGUN ZALAINEN EGITEN DUZU LAN. BERTZERIK EGITEKO ASMORIK?

Bai, maiatzetik iraileira *Zalainen* egoteko asmoa dut, eta gainontzeko denboran praktikak egiten segitu. Baina maiatza baino lehen atzerrira ateri nahiko nuke, Irizarren eskolak dituen kontaktuak probetuz. Iazko abenduan 8 egunetarako joan ginen anaia eta biok Argentinara erakusketa batzuk egitera eta arrunt esperientzi polita izan da.

EZ DA EUSKAL HERRITIK KANPORA LANEAN ARITZEN ZAREN LEHENBIZIKO ALDIA...

Ez, ikasketak bukatu nituenean 5 eguneko «sta-



lazko abenduan Argentinan egondu zen Iñaki bere anaiarekin batera.

ge» bat egin nuen Parisen, proba batzuk egiteko asmoz. Probak ongi ateri zitzaizkidan eta lan egiteko deitu zidaten gero, baina 18 urte bertzerik ez nituen eta hango diziplina gogorregia iruditzen zitzaidan. Nerekin lanean zegoen bat jo eta guzi egin zuen nagusiak, tontake-

ri batengatik. Gehiegi exigitzen dute nere irudiko. Estatu Batuetan barna ere egon nintzen eskolarteko txapelketa bat irabazi ondotik. Idahon, Elkon eta Renon zenbait erakusketa egin genuen, pintxoak eta afari pribatuak batipat. Han aunitz eskertzen dute gure lana, euskaldunok hagitza fama ona baitugu sukaldean. Alde horretatik, etxean baino arrakasta gehiago dugu atzerrian, eta kobratu ere gehiago kobratzen da.

GOI MAILAKO SUKALDA-

RITZARA DEDIKATZEA PENTSATU DUZU?

Normalean, Arzak eta Irizar bezalako izen haundiko sukaldariok sukaldeko lanik ez dute egiten, sukaldariak aukeratu, eguneko lana gainbegiratu, eta bezeroekin egotea tokatzen zaie. Bizimodu hori hagitza estresantea da, bizi erritmo sobera altua eramaten dute. Gustatu arren, ez dut uste horretara esklusiboki dedikatuko naizenik, nahia- go nuke gauza tikiagoren batekin aitzinera ateratzea.

» *“Normalean, Arzak eta Irizar bezalako izen haundiko sukaldariok sukaldeko lanik ez dute egiten, sukaldariak aukeratu eta bezeroekin egotea tokatzen zaie.”*

TESTUA:

ASIER GOGORZA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA



Eski alpinoa da gure eskualdeko jendea gehien estimatzen duena

ESKI DENBORALDIA

Urtetik urtera eski afizioa indartzen ari da

Azken urteotan zaletu aunitz bildu dituen kirola dugu eski. Ikastetxeek, mendialdeek edo bertzelako elkarteek eskiatzera joateko antolatzen dituzten bidaiak edonoren esku daude gaur egun. Nola? Oraindik elurrean tiriki-tarraka ibili gabea den norbait ezagutzen duzula? Ba, badakizu zer egin, asteburu honetan bertan eskutik hartu eta eramazu mendi xurietara, elurra urtu aitzinetik.

TESTUA:
ASIER GOGORZA
ARGAZKIAK:
Josu GOIA

negu beltza ez omen da kirola egiteko garairik aproposena. Sutorondo goxotan kontu-kontari aritzea neguko kirolik preziatuena dela erraten duenik ere bada, eta egia erran, ez zaio arrazoirik fal-

ta. Hala ere, gero eta jende gehiago dago etxeko erosotasunak utzi eta gorputzeko hotzak kentzeko asmoz mendialdera jotzen duena, elurrari batere beldurrik ez baliote bezala... Jertse lodia, eskularruak, txanoa eta eskiak hartu eta goiz goizetik abiatzen dira. Batzuek hurbil samar ditu-

gun eski pistak hautatzen dituzte, Irati, Orbaizeta, Isaba... Ipar eskian, fondoko eskia izenez ezagunagoa den modalitatean trebatzeko asmoz. Bertze batzuk, berriz, emozio gehixeagoren bila edo, eski alpinoa egitea nahiago izaten dute, horretarako bidai luzeagoak egin behar direla jakinda ere. San

Martingo Harria (Arette), Candanchu, Luz Ardiden, Formigal eta Astun bezalako tokiak aski ezagunak egiten zaizkigu, baita sekulan eski pare bat jantzi ez duenari ere.

Eliteko kirola

Garai batean eliteko kirol bezala ikusia zen eski, bai-

na gaur egun irudi hori aldatu egin da, jende gehienaren esku dagoen aukera bihurtu baita. Hala eta guztiz ere ezin da ukatu eskia kirol garestia denik, eskiatzeko materialaz aparte, pistetan sartu ahal izateko baimena (forfait-a) eskuratzeara eta bidaiak diru dezentente suposatzen du eta.

Prezioak

Eski alpinoa garestixea da, iraupen eskiarekin konparatuz. Horren lekuko ondoko datuok: Iraupen eskiko ekipo batek (botak, eskiak, makilak) 20.000 pezeta inguru balio dezake, eta alpino batek gehiago, 30.000-35.000 tarte horretan. Alpinoa noiz ere behin egiten duenarentzat ekipoa alokatzea edo lagunen bati eskatzea da gomendagarriena. Bertzetik, pistak eta berauen zerbitzuak (tele-aulkia) erabiltzeko ere ordaindu behar da. Denboraldi baxuan 2.000 pezetarekin egiten ahal den arren, puntako sasoiaren prezioek goiti egiten dute na-

barmen. Orainarte xahutu duguna gutti bailitzen, kontutan hartu behar dugu eskiatzeko arropa ere ez dela batere merkea, eta aldeberean beharrezkoa dela haize hotzaz eta elurraz babesteko.

Trabesia-eskia

Fondo eta Alpinoaz gain, aipatu ez dugun bertze eski modalidade bat dago, iraupen eta alpino eskia-aren konbinazio gisakoa dena: Trabesia eskia. Bertze bi eski modalidadeak menperatzen dituztenekin egin dezakete trabesia eskia delakoa. Izenak berak adierazten duen bezala ibilbide edo trabesia luzeak egitea da bere funtzioa, eta material berezia eskatzen duen kirola da, bertzeak baino garestiagoa. Menditartean, basoetan barna ibiltzea edo bailarak zeharkatzeko aukera ematen du eski moeta honek. Abentura maite dutenek praktikatzeko egokia da.

Taldekako bidaiak

Eski alpinoa da, hala ere, eguren zonaldeko jendea

gehien erakartzen duena. Herrietako mendi taldeek, kultur elkarteek eta ikastetxeek noiznahi antolatzen dituzte elurretara joateko autobusak. Gisa horretako bidaiak Berako *Agerra Mendi Taldeak*, *Batzango Mendigoizaleak* eta kasu konkretuetan bertze elkarte batzuek ere egin ohi dituzte. Irteera hauek egun batekoak dira normalean, eta prezioz hobeki ateratzen da kotxez bidaiatuta baino. Bertzalde, ikastetxeetatik ere joan ohi dira, iraupen eskia egiten den tokietara gehienetan. Horrela, 6. mailan ikasten duten haurrek aste oso bat Belagua inguruan pasatzeko aukera izaten dute, 15.000 pezeta ordainduz. Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bereziak luzatzen ditu horretarako. Oporraldi hauetan zehar monitore batzuen eskutik eskiatzen ikasteaz gain, Izaba bezalako herri ederrak ezagutu eta bertze zenbait ekintza ere egiten ahal dituzte haurrek. ■

«Gehien gustatzen zaidana trabesia eskia da»



Xabier ZUBIETA

AGERRA mendi taldekoa

Ze eski mota nahiago duzu, alpino edo iraupen eskia?

Bi hoietatik bat aukeratzekotan alpinoa erranen nuke, baina gehien gustatzen zaidana trabesia eskia da, zure airean ibiltzen ahal baitzara, inongo pistak segitu gabe.

Alpinoa egitekotan, nor joaten zarete?

Frantziako eski estazioetara joaten gara normalean, La Mongie aldera eta.

Agerra mendi taldeak antolatu izan ditu eskiatzera joateko zenbait ateraldi, ezta?

Bai, duela bi urteko neguan pare bat aldiz joan ginen Gouretteko estaziora, eta iazkoan berriz La Mongien egondu ginen. Aurten ere badugu errepikatzekeko intentzioa otsaila partean edo. Normalean egun bateko irteerak egiten ditugu, igande goizean autobusean ater, eguna eskiatzen pasatu eta arratserako itzuli.

Hagitz garestia al da eskiatzea?

Haraino joateko autobusa eta forfait-a 3500 pta gusta daiteke, eta eskirik ez baduzu 1500 pta inguru balio du egun baterako alkilerak.

PIRINIOAK

1 ARETTE Kokapena: ... Arette Iraupen eskia: ... 23 Km Alpinoa: ... 26 pista Tf: ... (0733) 59889536	2 CANDANCHU Kokapena: ... Candanchu Iraupen eskia: ... 21 Km Alpinoa: ... 22 pista Tf: ... (0743) 974373194	3 ASTUN Kokapena: Astun bailara Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 23 pista Tf: ... (0743) 974373036	4 FORMIGAL Kokapena: Astun bailara Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 61 pista Tf: ... (0744) 88125	5 PANTICOSA Kokapena: Tenako bailara Iraupen eskia: ... 80 Km Alpinoa: ... 20 pista Tf: ... (0744) 87260	6 ARTOUSTE Kokapena: ... Artouste Iraupen eskia: ... 10 Km Alpinoa: ... 19 pista Tf: ... (0733) 59053400	7 GOURETTE Kokapena: ... Gourette Iraupen eskia: ... 30 Km Alpinoa: ... 39 pista Tf: ... (0733) 59051217		
20 PUYMORENS Kokapena: ... Puymorens Iraupen eskia: ... 25 Km Alpinoa: ... 17 pista Tf: ... (0733) 68048241					9 CAUTERETS Kokapena: ... Cauterets Iraupen eskia: ... 36 Km Alpinoa: ... 20 pista Tf: ... (0733) 62925027	9 LUZ ARDIDEN Kokapena: Luz St-Sauveur Iraupen eskia: ... 5 Km Alpinoa: ... 32 pista Tf: ... (0733) 62928160		
19 FONT-ROMEU Kokapena: ... Font Romeu Iraupen eskia: ... 80 Km Alpinoa: ... 40 pista Tf: ... (0733) 68306830	18 LA MOLIDA Kokapena: ... Cerdeña Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 27 pista Tf: ... (0728) 2031	17 ARINSAL Kokapena: ... Andorra Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 23 pista Tf: ... (0738) 35822	16 SUPER ESPOT Kokapena: Pallars Sobirà Iraupen eskia: ... 25 Km Alpinoa: ... 29 pista Tf: ... (0733) 93237203	15 BOI-TAULL Kokapena: Alta Ribagorça Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 30 pista Tf: ... (0739) 6195	14 BAQUEIRA Kokapena: ... Salardú Iraupen eskia: ... 7 Km Alpinoa: ... 43 pista Tf: ... (0746) 45062	13 CERLER Kokapena: ... Benasque Iraupen eskia: ... Alpinoa: ... 24 pista Tf: ... (0745) 1012	12 BAGNERES Kokapena: Ba de Luchon Iraupen eskia: ... 27 Km Alpinoa: ... 23 pista Tf: ... (0733) 61792121	11 SAINT-LARY Kokapena: Saint-Lary Iraupen eskia: ... 10 Km Alpinoa: ... 33 pista Tf: ... (0733) 62394739

EGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

http://www.encomix.es/tpi-ttapa

e-mail:

tpi@encomix.es

e-mail:

tpi@mail.sendanet.es

zendaria: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

ozena, Asier Gogorza, Joxe-

nuel Irigoien. **Administrazioa:**

Maia Goia. **Erredakzio taldea:**

olo Apezetxea, Juainas Paul,

stina Boan, Bittori Telletxea.

Arriemaileak: Joseba Azpiroz,

teban Arozena, Juana Mari

izar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Patxi Otxan-

ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

ste, Pablo Mendiburu, Joseba

rabide, Alizia Olaizola, Mari

ri Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

Gerendiain, Jacqueline, Eli-

bet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

Txoperena, Pello Apezetxea,

or Arozena, Kristina Boan.

Laboratzaileak: EHNE Nafa-

a, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

r Etxeberria...

Arimategia: Graficas Ona.

tpi-ttapa ez du bere gain har-

n derrigorrez, aldizkarian adie-

ritako erranen eta eritzien eran-

kizunik.

akunde Laguntzaileak: Be-

Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

, Urdazubi, Zugarramurdi eta

rako udalak, Bortzirietako Eus-

a Mankomunitatea, Malerre-

ko Zerbitzu Mankomunitatea,

garramurdiko Akelarre Elkar-

...



Aldizkari honek Nafarroako
obernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Doneztebeko etxebizitza zainduak

Azeptazio eskasa izan dute eta erresidentzian bihurtzea pentsatu dugu



Miguel SAN MIGUEL
Mankomunitateko lehen.

Historia pixko bat eginez, mankomunidadearen

hasierako idea erresidentzia egitea zen. Nafarroako Gobernuak erresidentzia egiteko posibilitaterik ez zegoela erran eta etxebizitza zainduak egitea proposatu zuen, horretarako dirulaguntza haundiak emanez, gainera. Edifizio polita gelditu da, Donezteben farmazia, jubilatuen etxea, Osasun zentrua eta hainbat zerbitzu —laister Seguratasun Sozialeko bulegoa ere— daudela kontuan hartuz. Hala ere, egia da etxebizitza zaindu hauek guk uste baino azeptazio guttiago izan dutela, orain arte 24 pisuetatik 5 bertzerik ez baitaude okupatuak. Jendeak bertan bizitzera jarri baino lehenago ikusi nahi izaten du nola funtzionatzen duen. Sei apartamentu Baztan, Leitza eta Bortzirietako jendeari eskainiak daude, baina hortik ere ez da batere erantzunik jaso. Hortaz, pisu hauek erresidentzia bihurtzeko proposamena luzatu diogu gobernu berriari, Lesakan bezalatsu. Seguraski ez zen obra haundirik egin beharko eta bere buruaz baliatzen ez direnei ere irtenbidea emanen zaie.

Jendeak, ongi dagoen bitartean, bere etxean bizitzea nahiago du



Salvador AROZENA
Doneztebeko jubilatua

Jendea ez da animatzen etxebizitza zaindu hauek sartzera. Pisuak elegante paratuak daude, baina ongi dagoen bitartean jendeak nahiago izaten du bere etxean bizitzea segitu. Eta gaizkitzen denean berriz, erresidentzia bat bilatu behar du, pisu tutelatu hauek beraie buruaz baliatzeko gai direntzako baitira. Pisu bikoitea bizi baldin bada eta bietako bateritzen bada, honek erresidentzia bat behar du eta orduan bikotea bakarrik geldituko litzateke.

Sukalde eder bat ere egina dago, baina oraindik jende nahikorik ez dagoenez, ez dute martxan jarri. Horregatik, bakoitzak bere pisan prestatzen ditu otorduak. Eta horretarako ere, batzuk balio dute eta bertzeek ez. Nik uste dut pisu tutelatu hauek erresidentzian bihurtzea egokia izan litekeela, modu honetara, denentzako —balidoak nahiz ez balidoak— lekua izanen baita.

Mendialdeko jendea baserriari arras lotua dago

Blanca PEREZ DE SAN ROMAN
Gizarte Ongizate Saila

Etxebizitza zainduak proposamen berria da eta, seguraski, hirietan arrakasta gehiago du. Izan ere, Nafarroako herri tikietan eta batez ere, Nafarroako mendialdean adineko jendea arras lotua dago bere baserriari; bertan hil dira bere aurreko belaunaldiak eta sustraitua dago etxe horretan. Etxetik aldegin behar badu, arras gaizki dagoenean izanen da eta orduan, erresidentzia bat bilatuko du. Akaso horregatik ez dute honelako arrakastarik Doneztebeko etxebizitza zaindu hauek. Egia erran, Gizarte Ongizate saila zuzendaritzan gaur egun ez dago proiektua egin zenean zegoen inor, beraz ezin dut erran arrakasta gehiago espero zen edo ez. Erran dudan bezala, mendialdeko adineko jendearen mentalitatearekin lotzen dut jarrera hau. Seguraski belaunaldi berri bat esperatu beharko da, etxeari ez hain atxikia, mendialdean zaindutako etxebizitzak eskari gehiago izan dezan. Gaur egun, laguntza behar dutenendako erresidentziak bultzatu behar dira eta, zentzu horretan, gure sailetik zenbait bisitaldi egin behar dira laister, Donezteben egiten ahal dena aztertzeko.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egutero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

IRAKURLEAK MINTZO

Aresoko HBko idatziari erantzuna

Informazio zabala atera du Guraso Elkartek komunikabide askotan eta gogoratzen baduzue "giltza" izan da soinu gehien atera duen txaranga, hau da, maixuaren pisuarena, ez edozein espazio, esaten duten bezala, hau baizik. Hor daude frogak errepedeetan eta paretetan giltzaren marrazkiak. Areson 5. garren eta 6. garren maila gelditzeko eskaera egin zen, baina planifikaziorik gabe; beraien borroka indartzeko pisua lortzeko asmoz. Niri eskaera egin zidatenean, irailaren hasieran, trinketea itxitzea proposatu nuen oraingo proiektu berdintsu batekin, herriko jende guztiak aprobetxatzeko lokala eraikiz. Guraso Elkartek gogor esan zuen ezetz, beste tokitan parkeak irekitzen ari zirela, ea gure umek non jolastu behar zuten, ez zutelara obrarik egiten utziko, etabar... Eta orain beraien lorpena dela esaten dute. Nola ulertzen da hau? Beraien bere teman jarraitu dute azkeneraino. Bere borrokaekin dirua lortu dutela; ez da egia, beraien pisua nahi zuten eta beraien irtenbidea garestiena zen. Hain zuzen ere, edozeinek ikusi nahi badu Udaletxean daude proiektuak. Udaleko

GI prest zegoen dirua emateko; eta borroka hori baino lehen Guraso Elkartek esan zuen Iruñean izan zirela eta diru arazorik ez zegoela, beti partida inprebistoentzat gordetzen omen dutela. Eta beraien borroka eskertu zer lortu da ba? Indarrez sartu ziren maixuaren pisuan eta obrak egiten hasi ziren beraien kabuz. Udalak salaketa sartu eta goardia zibilak etorri ziren pisua desalojatzera. Hemen, maila eman ez dutenak HBko partaideak izan dira (Guraso Elkarteko buruak eta jarraitzaileak) arazo soziala bihurtuz eta arazo politikoan bukatuz, estrategia oso garbia eta ezaguna erabiliz; pausoz pauso bere ideiak lortu nahian, herria saminduraz eta sufrimenduz bete dute, gorrotoa handituz eta herriarren haserre eta elkar ezin ikusia sortuz. Kirol eta Hezkuntza zinegotziak HBkoak dira; beraien ardura Nafar Gobernuan diru laguntzak lortzea eta biderratzea izango dira, ez? HBko zerrenda burua erdalduna dugu Areson biztanlegoa %98 euskalduna izan arren. Borroka honek beste gauzaren artean gaitelania indartu du; izan ere Guraso Elkarteko "lehen-dakaria" ere erdalduna bait dugu. Zuen militantzia no-

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten iritzirik.*

labait mantendu behar duzue eta, gezurrak esanez eta sinistaraziz, indarrari eutsi nahi diozue. Zuri, irakurle, azkarra eta argia zarelakoan zabaldu diren informazioekin, zure ondorioak aterako dituzulakoan, agurtzen naiz.

MARTIN CABALLERO
ARESOKO ALKATEA



Errepresioak ez du okupazioa geldituko

Iragan abenduaren 14an, Iruñean, «Okupazioa aukera bat da sistema faxisten aurka» lelopean, manifa bat burutu behar zen. Helburua, etxebizitza eta lokal autogestionatuen beharra aldarrikatzea, eta zigor kode berria salatzea, zeinak okupazioa kriminalizatzen duen. Izan ere, nazkatuta bait gaude, beren buruak gure gobernaritzat dauzkaten zinismoaz, beren buruak ederki zuritzen badakite. Horrela, beren konstituzioak jende orok etxebizitzarako duen eskubidea, oinarrizko eskubidetzat hartzen duen bitartean, beren sasi legeen bidez, okupazioa (eskubide horren erabilpen zuzena) kriminalizatzen dute. Halaber, ai-

patzekoa da sasi demokrazia honen ardatz den konstituzio horretan, jabetza pribatua ez dela oinarrizko eskubidetzat hartzen.

Argi erran beharra dago, sistema faxista honek, definizioz, onartzen ez duena mugitzen garen jendea izaten dela, beren eskema txikitzaileetatik at, gure biziak autogestionatzeko gai izatea, sistema honen aurkako proiektu eta jarrekin. Horrela ba, manifestazioa hasteko zegoela, "okupazio" indarrak etorri ziren. Inori hitzik zuzendu gabe kargatu zuten, demokrazia honen adierazpen askatasuna eta iritziz aniztasuna gure larrutan goxatuz. Paradoxikoki, "okupa" hauek, agintarien eta legeen berme osoarekin Iruñea osoa okupatu zuten. Hemendik, okupazioa eskubide bat dela aldarrikatzen dugu, hala nola errepresioak ez duela mugimendua itoko, erantzuna gogortzea bertzerik ez dute lortuko. Okupazioaren bidez Estatu faxistari kaña! Jabego pribatuari kaña!

BAZTANGO GAZTE ASANBLADA



Tejidos Marínan dagoeneko inauteritan

- Mozorroen alokairu, salmenta eta josteta
- Sekulako aukera tela, mertzeri, txano, peluka eta era guztietako osagarrietan
- Betetzeko espumak plantxetan nahiz puxketan

Ez denborarik galdu, bisita gaitzazu, espezialistak gara



Colón Ibilbidea 1 • IRUN • Tfnoa: 943-622210

 **Pedro M^o ESARTE** *Elizondotik*

Toponimia eta nomenklatura



Historikoki harrigarria eta kulturalki penagarria da euskal jatorriko izenen galera. Ga-

lera hau, toponimia eta nomenklatura idatziaren ezak (boteretik ederki behartua) ekarria da.

Baztango balleanen kasuan, ikusiko dugu lekuen izenek bere jatorriko era nola galdu duten, nahiz eta dauzkagun datuek 4 edo 5 mendetako aldaketak bakarrik bildu, eta beraz aitzinetik izandakoak aipatu gabe utziz.

Aurkeztu daitezkeen adibideak ugariak dira: Urdazubiko Landibar auzoak Labandibar izena zuen, eta gaur Zuaztoi bezala ezagutzen dugun auzoa,

Urrizate deritzon parajea

(batzuek urrearekin eta

bertzeek urrekin lotzen

dutena) Urdizate

(zerri-tokia) izenarekin ikus

daiteke idazki zaharretan.

Zuaztogi bezala agertzen da dokumentu guzietan. Bertzetik, Urrizate deritzon parajea (batzuek urrearekin eta bertzeek urrekin lotzen duten leku izena) Urdizate (zerri-tokia) izenarekin ikus daiteke idazki zaharretan.

Elbeteko herria Eluet edo Eluete idatzita ikusi dut, Zigakoa, Zihiga, eta Iurrita, Irurieta, nahiz azken hau guttitan ikusi izan dudana. «Quinto Real» mendiak aurreko menderarte Alduide berezko izena

mantendu zuen, Perdón-eko mendizerrak berea mantendu zuen moduan, Erremiaga. Gaur egun berezko izen hori berreskuratzen saiatzen ari dira, nahiz nik harrapatu izan ditudan aipamenetan Arramiaga bezala azaldu. Etxe eta deituren kontuekin gauza berdintsua gertatu da.

Gaztelania idazteko eta solasteko hizkuntza landua (latina eta gero) bihurtzarekin batera, euskarak atzerakada nabarmena sofritu zuen. Hamaseigarren mendean sortutako dokumentuetan «batzarre», «kitto» eta «zamarra»-z aparte aski hitz gutti harrapatu ditzaiegu euskaraz. Dokumentu hauek notariak beraien itzuli behar izaten zituzten herriaren aurrean egindako agerpenetan.

Pertsona izenetan, euskal izenek irauin egin dute, baina abizenek erdararen kutsua hartu dute zenbait kasutan. Abizenak etxearen, herriaren edota ezizenaren ingurukoak direnean euskara nagusitu egiten da, baina aldez, lanbide berriek emandakoak erdaratik datoz.

Era honetan sailkatu daitezke; Barberena (erdarazko «barbero»tik), Sastrerena («sastre»tik)...

Hauek erdaratik etorri arren, euskaldundu egin diren abizenak dira. Bertze abizen batzuek ordea, beren euskarazko era gordenean egin dute, Aroztegik bezalaxe.

 **Fernando PEREZ DE VIÑASPRE** *HP2N*

Hizkuntzaren normalizazioa helburu



Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikaren arduradun naizen aldetik, po-

zez agurtu behar dut zuek gauzatzen duzuen iniziatiba. Hau bezalako lanek laguntza ematen diote gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko prozesuari.

Izan ere, asko dira botere publikoek egin behar dituzten lanak aipatu helburura ailegatzearren, egunetik egunera lortzen garrantzitsuagoak erdiesten ari bagara ere, oraindik ere luzea da ibili beharreko bidea, eta beraz, denon laguntza benetan positiboa suertatuko da. Gainera, aitortu beharra dago erakunde publikoek ezin dituztela beti behar guztiak bete. Horregatik, zuek eskaintzen duzuen aldirikarik bikain honek nire esker eta zorion zinezkoak merezi ditu eta hemendik, zuen lanak eta etorkizunean proposatu eta burutu nahiko zenituzketenak txalotu nahi ditut.

Halaber, nabarmendu nahiko nuke, Zuzendaritza Nagusi honen xedea hizkuntzaren normalizazio prozesuan aurrera egitea dela. Helburu hori erdiesteko funtsezkoak dira Nafarroako erakunde publikoen jarduketeta eta gure gizartea osatzen duten eragileen partehartzea. Bi alderdi horien lankidetzaren bidez bakarrik lortu ahalko da hizkun-

tzaren normalizazio prozesua aurrera eramatea.

Helburu hori lortzeko honako puntu hauek garatu beharko dira:

-Nafarroako Administrazioaren esparruan hizkuntza normalizatzeko prozesuan aurrera egitea.

-Arrazoizko diseinua eta hornidura dituzten zirkuitu elebidunak sortzea administrazioan, hiritarrek eska ditzaketen zerbitzuak

Hizkuntza normalizatzeko

funtsezkoak dira Nafarroako

erakunde publikoen jarduketeta eta gure gizartea

osatzen duten eragileen

partehartzea.

behar den bezala eman ahal izateko.

-Aurrera egitea barruko eta kanpoko aldera ematen den hizkuntza normalizazioaren irudian.

-Hizkuntzaren arloan legeak nafarrei aitortzen dizkien eskubideen erabilera bermatzea.

Hizkuntza normalizatzeko xedea lortzeko laguntza ematen duten beste helburu hauek ere aipatu nahi ditut: Hizkuntzaren normalizazioan aurrera egitea Toki Administrazioan, gizartean eta kulturaren, lan munduan eta komunikabideetan.

Helburu hoiek guztiak administrazioan lanpostuak eskuratzeko hizkuntza eskakizunei buruzko Dekretu bat ezartzera eramaten gaituzte; gaur egun prestatzen ari dena.

Azkenik, Ttipi-Ttiparen irakurle guztiei agur bero bat eman nahi diet. Ongi izan.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Argia 96-XII-15

«Bereizkuntza hori, kultura jantzia eta ez jantziaren artekoa, gezurra da. Nik garbi ikusten dut partikularitasunak beti indarra izanen duela, unibertsaltasunera iristeko partikularitasunetik abiatu beharra dagoela»

Patziku PERURENA
Idazlea
Argia 96-XII-15

«Migel Indurain nekatu xamarra dago konpetizio munduaz eta

logikoa bertze bizimodu bat nahi izatea»

Jose Luis JAIMERENA
Banestoko Kirol Zuzendaria
Diario de Noticias 97-I-3

«Eskatzea libre baita, 97rako borondatea eta gaitasuna eskatuko nieke dagokienei, Euskal Herrian ditugun erronkak, gatazkak eta gabeziak gaingidtzeko. Atx! Soberaxko eskatu diet, noski»

Joseba IGARABIDE
Egunkaria 97-I-8

◆ **Ostatuan zer nahiago, barraren barnean edo kanpoko aldean?**

- ◆ Anaiak barnean eta ni kanpoan.
- ◆ **Tabernetan, dantzatu ala abestu?**
- ◆ Dantzatu bitartean abestu (abots ona dutenek...)
- ◆ **Ostatuan, jendea ikusiz «ikasten» da ligatzen?**
- ◆ Jendeak gu ikusita ikasten du ligatzen.
- ◆ **Ligatzearen «magia», ligatu aintzinean edo gibelean?**

◆ Hasierako rolloa arras polita da, hori bai, amaiera on batekin.

◆ **Ardoa edanda mozkortu, pipa erreta xoratu, kortejatzian...**

◆ Nik ez dut kortejatzin, ni kortejatzin naute.

◆ **Bestondo egunerako menu egoki bat?**

◆ Ura eta aspirina. Postrerako, berriz ura.

◆ **Eguerriak, iñauteak, Baztandarren Biltzarra, bestak, feriek..**

◆ Feriek, bestak, Baztandarren, iñauteak, eguerriak. Hurre nintzelarik orakunde.

◆ **Iñautetarako gustokoa duzun mozerro bat?**

◆ Drag Queens, gure alderdi ezkutatua ateratzen baita.

◆ **Futbola, berdin ikusten da bankillotik eta zelaitik?**

◆ Bankillotik errexago. Aritzean zelaiak tikiagoa iduri du.

◆ **Barça-Madrid partiduaren emaitza?**

◆ -2/-2. Biek galtzea nahiko nuke. Ni oviedozailea naiz.

◆ **Himalaya ala Cancun?**

◆ Canada eta Europako ekialdea.



Josetxo GALARREGI
«FUTBOLIN» ostalua/Futbol entrenatzailea. ELIZONDO

EZKALO

LAISTER DONEZTEBEN PABILIOI INDUSTRIAL ETA KOMERTZIALAK

1.800 m ²	48.000 pta.
900 m ²	52.000 pta.
450 m ²	56.000 pta.
300 m ²	58.000 pta.
150 m ²	62.000 pta.
75 m ²	65.000 pta.

Zerbitzu guzietan: ura, argia, telefonia, guztiz urbanizatua

LESACA

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak
Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

Arkupeak elkarteak urteroko besta ospatu zuen Doneztebe eta Elizondon

Nafarroako Gobernuari eta bertze erakundeei zenbait eskaera egiteko probextu zuten

800 lagunetik goiti bildu ziren Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak abenduaren 16an Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan antolatu zuen urte bukaera besta. Ekitaldian izan ziren, eraberean, Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria; Calixto Ayesa eta eta Jose Luis Alli, Gizarte Ongizate saileko kontseilaria eta zuzendari nagusiak; Miguel San Miguel, Doneztebeko alkatea eta Jose Zubillaga, Volkswagen enpresako langilego zuzendaria eta Nafarroako Aurrezki Kutxako ordezkariak, bertzeak bertze.

KLIMATIZATUTAKO PISZINAK ESUALDE BAKOITZEAN ETA FURGONETA BAT

Honelako pertsonaiak bazkarira etortzea ederki probextu zuen Felipe Ganboa, Arkupeak elkarteak lehendakariak eta zenbait eskari luzatu zituen. Sanz lehendakariari klimatizatutako igerilekuak es-



Urte bukaerako besta zenbait eskari egiteko probextu zuten Arkupeak Jubilatuta elkarteak ordezkariak

Argazkia: Joxemanuel

katu zizkion zonaldeko eskualde bakoitzerako eta Volkswagen enpresako ordezkariari furgoneta bat. Lehenengoak ez zuen ezezkorik erran, "ordagoa nahi zuela" erantzunez eta bigarrenak baiezkoa eman zuen garbi-garbi. Doneztebeko alkateak, bere aldetik, eskualde hau bazterrean ez uzteko eskatu zion lehendakariari eta honek "zonalde hau ez dugu inoiz

ahaztuko, Nafarroako zati garrantzitsua delako. Ez ditugu komunikabideak atzenduko, ezta gizarte eta osasun zerbitzuak ere" erantzun zuen. Miguel Sanz lehendakaria ere ez zen esku hutsik itzuli Iruñera eta Arkupeak elkarteak emandako txapela eta makila jaso baitzituen.

Bertzalde, Gizarte Asegurantzarekin lotutako CAISS erakundeak Donezteben egiten

ari den bulegoa hemendik bizpahiru hila betera martxan izanen dela jakinarazi zuten. Modu honetan, erretiratuak bertan egin ahal izanen dute beraien pentsioekin zerikusia duten tramitazio guziak, Iruñera joan beharrik gabe.

Elkartekoeak duten egitasmoen artean, Egiptoko Nilo ibaian barna eginen duten kruzeroa da nagusia.

Aurtengo ekitaldi egitaraua

Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak urte bukaera bazkari eder batekin ospatzeaz gain, 1997an egin asmo dituen ekitaldi nagusien berri ere eman zuen Donezteben. Honako hauek izanen dira inportanteenak:

- **Kultur eta denbora librekoak:** herrietako eta eskualdeko mus txapelketak, gimnasia ikastaroa, Arkupeak aldizkaria, adinekoei buruzko so-lasaldiak, akitaldien albuma, bazkideen lanen erakusketa, Pilotaren Eguna eta lehen txirrindula proba.

- **Erljiioari lotutakoak:** Xabier, Olivako monastegira, Lourdes, Arantzazu eta Lezora erromesaldiak eta gogo ihardun ekitaldiak.

- **Mendia:** Arantz-Elgortia ibilbidea, Plazaola trenaren ibilbidea eta Urbanan ibilaldia, Lizarran bazkalduz.

- **Egun bateko eskurtsioak:** Iruña, Donostia, Bilbo, Belateko tunela, Erribera.

- **Ospakizunak:** herrietako bestak, 85 urte bete dituztenei omenaldia, Urrezko Ezteia, herrien arteko anaitasun bestak eta urte bukaerako besta.

Ez dute etxe xokotan egoteko asmorik, bistan denez.

Dia  **Autozerbitzua deskontua**

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Joxe Luis Telletxearen estradizioa anuntziatu du Espainiako Gobernuak

Herriko bertze presoak ere ez daude egoera onean

KRISTINA BOAN

Herriko presoak solasgai izan ditugu azken aldi honetan, ez bakarrik gure inguruan, baita Espainia eta Portugalgo komunikabide guttietan ere.

Espainiako Gobernuko Barne Sailak Joxe Luis Telletxearen estradizioa anuntziatu zuen urte hasieran, oraindik epaiketaren tramitazio gutzia egin

gabe badago ere. Portugalgo Epaitegi Gorenak errekurtsioa aurkeztu du eta, momentu honetan, Joxe Luis erabakiaren zain dago Lisboako espetxean.


Bere momentuan, muga pasatzeko laguntzaile izatea leporatu zioten Joxe Luisi, Josu Unsioneri bezalaxe. Josuren kasua ere aski berezia da. Epaileak torturatua izan zelako susmoak onartzen ba-

ditu ere, zortzi urteko espetxe zigorra ezarri dio. Kasu honetan, erakunde aunitzek -Amnistia Internacional, adibidez- beraien salaketak eta susmoak azaldu dituzte. Gaur egun gogose greban dago Unsiön, kolektiboko bertze presoekin batera, euren eskubideak errespetatuak izan daitezzen eskatuz.

Aitzineko alean aipatu genuenez, Sebasek osasun arazoekin segi-

tzen du aspaldi honetan eta kartzelako osasun arduradunek ez dute bere konfidantzako mediku batek ikustea uzten. Joxelu Etxeberriak gogose greba bukatu berri du.

Bertzalde, urtarrilaren 10ean, Mukixu zubian egin zen 'Euskal presoak Euskal Herrira' lemapean, urteko lehen enkartelada. Aurrerantzean ortziralero egingen da, arratseko 7,30etan.



'Atxuriatik Larrunerat' ipuin lehiaketa

Berako idazle gaztetxoek partehartze ikusgarria izan dute 'Atxuriatik Larrunerat' ipuin lehiaketan. 9 urte arteko mailan, 126 idazlanen artean bigarren saria eskuratu zuen Ander Mitxelena Agestaren *Sarako mendian* ipuinak. Bertze zazpi beratarrek aipamena jaso zuten. 10 eta 11 urte arteko mailan berriz, Mikel Telletxea Gagoren *Kontrabandoa* lanari eskaini zioten sari nagusia. Horretaz gain, bertze bi idazle beratarrek jaso zuten aipamen berezia, 86 idazlanen artean

Arg.: Bittori

Gure Txokoa dantza taldea

Bortz urtetik goitiko haurrek Gure Txokoa dantza taldean ikasi nahi badute, urtarrilaren 18an, larunbata, eguerdiko 12etatik letara joan beharko dute Eztegarra pilotalekura izena ematera. Deialdia lehen aldiz izena emanen dutenentzat eta lehendik ari zirenentzat luzatzen zaie.

Mendi probetxamendua

Lizanabar inguruko 2.776 pinuen probetxamendua Iturberri enpresak egingen du 12.210.000 pezetaren truke. Iesola-Ardizaku inguruko lotearentzat berriz, ez zen eskaintzarik aurkeztu.

flash

'San Jose'

Zahar Etxean

zenbait lan egiteko 2,4 milioi pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza sailak. Bertzalde, Zahar Etxeko Patronatoak eta monjek erresidencia egiteko beratarrek emandako laguntza eskertu dute. Orain arte 9.108.053 pezeta jaso dira. Dirutza horretatik 6.304.179 pezeta eraikuntza berria egiteko erabili dira eta gainerakoa, mobleak, zati bat bederen, ordaintzeko.

Amaia Irastorza

herriko trikitilariak parte hartu du Euskal Irrati Telebistak (EITB) antolatutako trikitilari txapelketan. Nafarroako ordezkari bakarra izan zen.

Euskarari buruzko erakusketa

Asteazken honetan, urtarrilak 15, arratsaldeko 7etan izanen da Euskarari buruzko erakusketaren amaiera zeremonia. Ondotik merendua emanen da.

Kaldereroen entsaioak

Iñauterietan kaldererotan ateratzeko entsaioak urtarrilaren 29 eta 30ean egingen dira, 7,30etan Jamotenean.

AHORRO-BERRI
janaridenda

Legia 4 • BERA

Igande goizetan irekia

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

tfnoa: 630259 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, © 63 05 98

BERA

Mantenimendu lanpostuak murriztu nahi ditu CSI lantegiak

Zazpi lagun komitearen egoitzan daude lanpostuen defentsan

AITOR AROZENA

Beraien lanpostuen defentsan, mantentzeko goizko txandako zazpi lagun Enpresa komiteko bulegoan daude, bortz abenduaren 12az geroztik eta gainerako biak urtarrilaren 7tik aitzinera. Komitean dauden lagunen arteko ordezkaritza batek adierazi duenez, gaur egun, goizko txandan 18 mekaniko eta 9 elektrizista daude eta fabrikak 12 mekaniko eta 6 elektrizista bertzerik ez ditu nahi. Hau da hiru lanpostuetatik bat desagertuko litzateke. *"Gure ustez bertan badago lana eta ez du logikarik fabrikak egin nahi duena, ez gara eszedenteak, alegia"* dio langileen ordezkariek. Urtarrilaren 9an lantegiko zuzendaritzak bilera izan zuen Enpresa Batzordearekin, afektatutako langileak bertan zirela. Halere, ez zen irtenbide egokirik aurkitu eta aitzinetik moldaketarik ez bada, otsailaren 19an burutuko da epaiketa. *"Alde bakoitzaren jarrera argitzeko bertzerik ez zuen balio izan, ez zen aitzinpausurik eman. Lantegiak, gure lanpostuak beharrezkoak ez direla erakusteko bi koadro guz-*



Dantza saioa

Eguberrietako beste akabera emateko, Errege egunean dantza saio ikusgarria eskaini zuten frontoian Irain eta Tantirumairu dantza taldeek.



Mantenimenduko langileen ustez, langile finkoak kendu eta subkontratatuak sartu nahi ditu CSI lantegiak

Artxibokoa

tiz ezberdinak aurkeztu zituen".

Langileen ustez, *"lantegiaren erronka*

langile finkoak kendu eta beraien ordez, subkontratatuak sartzea da".

flash

Beti Gazte kirolzaleena

Beti Gazteko futbol taldeek joan den urteko talderik kirolzaleenari emandako saria jaso zuen Gipuzkoako Arbitroen Federaziotik abenduaren 29an Hondarribiaren kontra jokatuako partidoan. Justo Agirretxek jaso zuen saria elkarrearen izenean.

Musika bandak

140 urte bete ditu aurtten. 1857an sortu zenetik hainbat gorabehera bizi ditu (zenbait urtetan desagertu zen, bertze zenbaitetan bi banda izan ziren, udalarena eta elizarena...). Gaur egun osasun ederrean dagoela erran daiteke eta akaso ospakizun bat antolatuko da aurtten.

Guardiazibilaren jarrera salatu du Lesakako Herri Batasunak

Lesakako Herri Batasunak guardiazibilaren jarrera salatu du idatzi baten bidez. HBren ustez, *"kontrolak eguneroko ogia genuen, eguneroko Patrolak herrian gora eta behera probaketen eta horrekin konforme ez egonik, ostatuen ordutegia aitzakitzat hartuta, jendea beldurtzeko jokabide horrekin segitu dute".*

Idatziaren arabera, identifikatzeari uko egiteagatik bi gazte eraman zituzten Berako kuartele-

lera, batek tratatu txarrak jaso zituelarik. Biharamonean bi gazte atxilotu zituzten pintadak egitearen akusaziopean eta *"Berako kuartelean jipoitu ondoren, Iruñera eraman eta epailearen aurretik pasa ondotik aske geratu ziren"*.

Atxilotuekin eta tabernariekin bere elkartasuna adierazi ondotik, *"guardiazabila Euskal Herritik behin betiko kanporatua izan dadin"* aldarrikatzen du HBren idatziak.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater kombinatuak eta menuak
627573 • LESACA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — 63 07 63

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESACA

ORBELA
gimnasioa
• Squash eta sauna
• Hidromasaje baina
• Muskulazio-aretoa
• Kirol masajea
Antoiu 21 • 637950 • LESACA

ETXALAR

Erausian taldea sortu dute gazteek

Euskararan balioaz jabetzen laguntzeko

PELLO APEZETXEA

Erausian Euskara Gazte Taldea du izen osoa, eta izen berarekin eta helburu berdinarekin sortu dira Bortzi-rietako bertze herrietan ere. Herriaren hizkuntza propioaren balioaz ohartzeko saiatu, eta horretarako laguntzen ahal duen zenbait ekintza urtean barrena antolatu: horixe dela erraten ahal da taldeak pentsatutako zeregina. Denan den, hizkuntzaren estimazioa erabiltzean agertzen da, bizia ere horrela ematen baitzaio. Eta hori izan da, azken batean, Erausian Taldeak bilatuko duena, izenak dituen bezala. Erausian

hitzak Solasean erran nahi baitu.

Sarezko bertze usategietan ere uso ugari harrapatu dituzte

Hondarreko urteetan baino uso gehiago ehi-zatua aipatu genuen hementen, Etxalarko usategiei buruz. Hori bera erran beharrean gaude bertze Ipar Euskal Herriko usategiei dagokienez, sarek ehi-zatzen duten usategiei dagokienez, alegia. Eta, banaz-bertze, Etxalarren baino gehiago. Bat edo bi kenduz gero, Etxalar nagusi izaten da gehienetan. Aurten, ordea, hamar usategietatik bortzetan Etxalarren baino



Larraburuako erregeek txokoltea banatu zuten

Larraburu elkarteko erregeek txokoltea ekarri zuten aurtengoan ere haurrentzat. Bistan denez, herriko neska-mutikoez ederki eskertu zuten oparia eta jan eta edateaz gain, jolasean eta solasean aritu ziren.

Argazkia: PELLO

uso gehiago sartu da sareetan. Hala-nola, Etxalarren 1.840 uso, Oskitxen 1.853, Lannen 2.572, Lekunberrin 2.603, Suheskun 3.085 eta Napalen 4.048. Denetara, hamar usategietan, 18.855.

Irristaketa eta futbito ikastaroak hasi dira

Hasi ez badira has-teko daude irristaketa eta futbito ikasteko saioak haurrentzat. Irristaketa larunbatetan eta futbito asteazkenetan.

Izen emateko egunek beteak izan behar dute, noski. Parte hartzen dutenek ordaintzen dutenaz gain, Altxata Elkar-teak ere sartzen du sos kopuru bat. Orain hasi eta maiatzarekin akautuko dira ikastaroak.

ELENA Etxea

Inauterietarako presta zaitez ez utzi azken egunerako!!

• Telo, peluka, txano, mertzeri eta osagarrietan aukera zabalak

• Plaza Berria 2 • LESAKA • ☎ 637106

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena Tfnoa: 63 52 14



ETXALAR

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA



☎ 635290
ETXALAR

ASTEARTETAN
ITXITA

HERRIKO OSTATUA

ordutegia

OSTATUA

Astearretan: 11etatik 21etara
Asteburuetan: 10etatik 1etara

JATETXEA

Astearretan: 13etatik 15etara (afariak aitzinetik enkargatuz)
Asteburuak: 13etatik 15.30etara eta 20.30etatik 22.30etara

IGANTZI

Eguraldi hotza baina giro ederra aurtengo Eguberrietan

Urtetik urtera goiti doaie jendearen partehartzea ospakizunetan



Atxuriatik Larrunerat ipuin lehiaketan taldekako saria ere Igantzira etorri zitzaigun, 1., 2. eta 3. mailakoek irabazi baitzuten. Lourdes Larzabalen lanak ere aipamen berezia merezi izan zuen. Lau olentzero ibili ziren, bertzalde, Gabon arratsean. Ikusten ahal denez, adin guzietako neska eta 'mutil koskorrak' ibili ziren herri inguruan.

Argazkia: OSKAR

Personaia

«Ez da beti horrela aterako, baina idazten segituko dut»

Bigarren gelditu zen bere mailan Miren Mitxelena 'Atxuriatik Larrunerat' ipuin lehiaketan

■ Saririk hartzea espero al zenuen ipuina idatzi zenuenean?

□ Ilusioa banuen egia erran, baina zaila izanen zela pentsatzen nuen. Ez nuen uste, gainera, hain sari ederrak emanen zizkigutela, plaka eta guzti.

■ Zer uste duzu egin behar dela ipuinak ongi idazteko?

□ Nik nere ahizpekin ikasi dut dakitena, eurek laguntzen baidirate idazlanak egin behar ditudanean. Leitzea baino aunitzez gustokoagoa dut.

■ Bertzetan parte hartzeko prest?

□ Badakit ez dela beti horrela aterako, baina idazten segituko dut.



Miren MITXELENA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA FTA KARTA

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 63 00 83 BERA

Aranguren
Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

barnek s.l.
Sukalde mobilen fabrika

Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

LABEZAR
© 631076 • BERA

XATURETXEA
J A T E T X E A

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ARANTZA

Eguberrietako bestak pasatu ondotik, egunerokoarekin hasteko garaia

Mendi Mutilen besta ospatu zen Errege egunean

ELIXABET ETA GARBINE

Dagoeneko Eguberriak ere pasatu zaizkigu eta nahiz eta elurra ez den herrira bertaraino iritsi, hotz ikaragarria izan da egun hauetan.

Eguberriari hasiera emateko olentzero iritsi zitzaigun eta herriko neska-mutikoez zazpi olentzero plazaratu zituzten. Eguberri egunean, frontoian, haurrentzako jokuak antolatatu ziren eta bukaeran, talde bakoitzak Eguberrietako kantu bat eskaini zuen.

GAZTEAK SANTAKETAN

Bertzalde, Gazte A-sanbladakoak Santaketan ibili ziren etxez etxe bertsotan, hotzari aurre eginez. Lehenengo egunean Eguzkialdea eta Bordalarrea auzoetan barna ibili ziren eta



Aurten ere olentzero ederrak ikusi ahal izan dira herriko karriketan. Guztira zazpi plazaratu ziren

Elixabet

bigarreanean, Aientsa, Azkilarrea eta herrian ibili ziren.

ESKI BIDAIA

Antolatuta zegoen eski bidaian, nahiz eta autobusa ez zen osorik bete, jende frango bil-

du zen. Herriko gazteekin autobusa bete ezenez, inguruko herrietako gazteak ere joan ziren. Egun guztian Gourette eskiestazioan pasa ondoren, jendea gustora gelditu zen, bertan zegoen eguraldi ona

aprobetxatuz.

Urtarrilaren Sean, Eguberriei bukaera egokia emateko erregeak ere iritsi zitzaizkigun. Kabalgata egin zen eta bukaeran haur guzietan opariak banatu zizkieten elizan.

Mendi Mutilen besta

Errege egunean Aterpe jatetxean urteroko mendi mutilen bazkaria egin zuten. Bertan ehun bat lagun bildu ziren. Lehenik Olasagasti eta Donato Larretxearen arteko aizkol apostun gipuzkoarra nagusitu zen. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso aritu ziren bertsotan. Bazkaria alaitzeko, bertalde, Olatz eta Leire trikitilari gazteak ere jofafuego aritu ziren.

1960ko hamarkadan 16 eta 20 urte bitarteko 120 bat gazte joan ziren Frantziako Pirinotara mendian lanean aritzera, Saint Gaudens ingurura. Lan gogorra bazen ere, xoxa etxeratze modu polita zen. Gaur egun, ordea, hiru aranztar bertzerik ez omen daude inguru horretan.



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moketak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
 Tfnoa.: (948) 63 11 99 - **BERA**

LEGARRA
 Legarra, 9 • © 63 70 30 • **LESAKA**
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

BIENBENIDO eraikuntzak

- Teilatuen moldaketa
- Igeltseritza lanak

Tel mug.: 989.803680

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735
 Irun © (943) 622305

Dena prest dago hurrengo asteburuan Iñauteriak ospatzeko

Igandeko karroza desfilea izanen da ekitaldirik aipagarriena

IXABEL ETA JOSUNE

Hilbeltzaren 24tik 26rako aste ondarrean ospatuko dira herriko iñauteriak.

Igande goizeko karrozen desfilea izanen da ekitaldirik aipagarriena, betiko gisan, hamabortzen bat karroza prestatuko baitira seguraski eta frontoiko sorpresa ere ez da faltatuko. Ondotik zozketa eginen da, irabazlea agertu arte.

Herriko Etxetik 55.000 pezetako laguntza espero da, iaz bezala. Ulibeltzak elkar-teak ere laguntza ederra ematen du egun honetan, desfilean, jan-edatekoekin 30 lagun inguru ibiltzen baitira. Herriko Etxean, salda, taloak eta gaztainak serbitzen dituzte. Saldaren martxa Jose Mari Arretxeak (Itxegi) era-



Gaur egun, ekitaldirik famatuena karroza desfilea bada ere, urtero bezala baserriz baseri ibiliko dira gazte koadrilak

Agesta

maten du. Herriko Etxeko karroza prestatzeaz ere, hauek arduratzen dira.

**OTORDUEN
GARRANTZIA**

Igandeko karrozen des-

filea da, erran bezala, ekitaldirik nagusiena, baina aitzinetik ere bestarako eta, zergatik ez, lanerako astia bada. Eta iñauterietan, otorduei garrantzi berezia ematen zaie.

Ortzegunean bildotsak hiltzen dituzte, sei jateko eta bertzea erri-fatzeko. Jexus Mari, Santus eta Itxegi soziedadeko sukaldariak arduratzen dira bildotsa prestatzeaz gosarirako.

Larunbatean Itxegi salda prestatzen hasten da, 200 litro pasatuxek. Iganderako bildotsa puskatzen aritzen dira Jexus Mari, Migueltxo eta Rubio. TTIPI-TTAPA honekin batera datorren gehigarria osatzen eta musika kontuak ordaintzen ere laguntza fina ematen du Ulibeltzak elkarteak.

Igandean, goizeko 7ak aldera taloak eta tortilla prestatzen hasten dira dozena bat lagun. Gero, desfilean, serbitzen eta prestatzen segitzen dute.

Soziedadeko bazkarian 90 lagun inguru biltzen dira. Eustakio Errandonea arduratzen da bazkari honetaz eta Rubio aritzen zaio laguntzen. Urteroko menu berdintsua izanen da aurten ere: paella, bildotsa eta gaztanbera.

On egin!



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

**GAZTELUKO
OSTATUA**

- Eguneroko menua eta karta
- Logelak

© 450105 • GAZTELU

**MASAIA eta
BIZKORTZE ARIKETAK**

Txomin IRAZOKI

**Laister
zabalik**

Parrokia 5 • DONEZTEBE

**ARIN
ASEGURUAK**

Baserria edo txaleta su, tximista, ura, etabarretatik aseguratzen adibidea:

- Eraikuntzaren balorea: 20.000.000 pezeta
- Erantzukizun Zibila: 25.000.000 pezeta, kristalak, sanitarioak, ispiak haustea barne
- Ordaintzeko: 17.989 pezeta urtean

Parrokia 21, Tel.-Fax: 450266 • DONEZTEBE

**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

MALERREKA

Doneztebeko eskola kontseilua berri da

Irakasleen aldetik ordezkari bakarra aukeratu zuten

TXEMA ALDABE

Joan den abenduan aukeratu ziren Eskola Kontseiluko partaideak izanen direnak, batzuk hurrengo bi urtetan eta lau urtez bertzeak.

Gurasoen aldetik Daniel Belarra, Rosa M^a Gartxitorena, Ana Gonzalez, Juana M^a Muñoz eta Alfredo Zugarramurdi dira parte hartuko dutenak. Eskolako maisu-maistren aldetik bortz partaide izateko aukera bazegoen ere, bat bakarra aurkeztu zen kontseiluan parte hartzeko: Begoña Mugeta. Eskolako zuzendaritzaren aldetik M^a Jose Gartzia zuzendaria, M^a Carmen Txokarro ikasketak-burua eta Jabier Juankorena idazkaria izanen dira partaideak eta, azkenik, udalaren aldetik, Jabier Elizalde. Zerbitzuen aldetik bertze ordezkari bat izateko aukera bazegoen ere, inor ere ez zen aurkeztu.

Erran behar da Kontseilu hau Doneztebeko eskolako Haur Hezkun-



Eskola Kontseiluko partaideak, batzuk bi urterako eta bertzeak lau urterako aukeratuak izan ziren

Argazkia: TXEMA

tza, Lehen eta Bigarren hezkuntzarena dela eta argi dago maisu-maistren aldetik ez dagoela gogo haundirik honetan parte hartzeko.

San Miguel ikastetxeko gaiekin segituz, garbiketaren kontrata 32.559 pezetan igo da, DBH ezartzerakoan bertze solairu bat garbitu behar baita, lehen baino 1.017 m² gehiago. Honela erabaki zuen udal batzarreak.

Merkataritzan euskaraz

'Merkataritzan euskaraz' izeneko kanpaina aitzinera doaie eta Malerrekako merkataritza gehien euskararen aldeko apostua argi dago, batzuk euskara ikastera edota hobetzeraz animatu baitira. Kanpaina hau hilbertzaren 31rako akitua izanen da. Norbaitek argibideren bat nahi badu dei dezala 451746 telefonora.

Ordezko Zerbitzu Soziala

Gaur egun 15 kontzientzia eragozle edo objetore omen daude Donezteben eta Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko edozein momentutan dei diezaiekete. Herriko Etxeak bertze 10 plaza ezartzea eskatu du, horietatik 8 Ingurugiro programarako eta gainerako biak Administrazio programarako.

flash

◆ **San Migel karrikako lanak**
Doneztebeko Udalak 'Construcciones Pagozelay Goizabal, SL' enpresari adjudikatu zizkion San Migel karrikako hornidura eta saneamendu sareak eta zoladura berritzeko lanak. Adjudikazioa 9.888.078 pezetakoa da (BEZa barne).

◆ **Taxi berria**
dugu Donezteben, urte berriarekin. Josebe Aldabe da plaza berri honen jabe. Beharrezko dagoenak aski du 450687 telefonora deitzea.

◆ **Bearzana Ehiztari elkarte**
Borda Txuri eta Askingo bordak moldatzeko 40.000 pezetako dirulaguntza eman dio Doneztebeko udalak Bearzana ehiztari elkarteari.

◆ **Babes ofizialeko etxebizitzak**
Ameztia inguruko 'bakillen' belagian egin beharreko etxebizitzak banatzeko baremoa onartu du Doneztebeko udalak.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA
MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • **DONEZTEBE**

MALERREKA

Beintza-Labaien eta Oitzen 96ko udal aurrekontuak onartu dira


Urtea akitzeko puntuan zegoela aurkeztu zituzten

TTIPI-TTAPA

Urtea akitu baino lehenxeago izan bazen ere, iazko udal aurrekontuak onartu zituzten Beintza-Labaien eta Oizko udalbatzek.

Beintza-Labaienen 44.092.087 pezetako sarrera-irteerak kalkulatu zituzten. Gehien bat ondasunak eta zerbitzuak erosten (19.538.210 pezeta) eta inbertsioetan (17.488.766 pezeta) gastatu zen. Diru sarrera haundienak, berriz, tasa eta bertzelako zergen bidez (15.711.000) eta dirulaguntzen bidez (6.894.500) jaso zituzten. Herriko Etxeko kuxkak zuen 12 milioi pasatuxek ere erabili behar izan dituzte kontuak kitzatzeko.

Oizko udalari dago-kionean 69.706.552 pezetako behin betiko udal aurrekontua onartu zuen



Ihaureriak Ituren eta Zubietan

Hilbartzaren 27 eta 28an ospatuko dira inguru-tako iñauti famatuena, Ituren eta Zubietako alegia. Joareen burrunba sumatuko da berritro.

udalbatzak.

la 70 milioi pezetako aurrekontua Oitzen

Kopuru horretatik 37.795.180 pezeta inbertsio ezberdinetan erabili da eta 16 milioi ondasun eta zerbitzuak erosten. Langileen lan-sariak ordaintzeko ere ia 10 milioi behar izan dira.

Diru sarreretan, kapital transferentzien bidez 25 milioi terdi hartu dira. Tasa eta bertzelako zergen bitartez jasotakoa 21.702.480 pezeta izan dira eta Nafarroako Gobernuak emandako subentzio ezberdinen kopurua 9.362.500 pezetara ailegatu da eta lehendik Herriko Etxeak kutxetan zituen 7.618.448 pezeta ere erabili behar izan dira diru kontuak berdintzeko.

▼ flash

◆ Bidasoa-Berroaran Mendieta Administrazio Batzarrea

Joan den urteko azaroaren 14an osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, 'Basarte, SL' enpresari adjudikatu zitzaizkion Bidasoa-Berroaran eta Kokoriko mendietako, Elgorriagako eta Doneztebeko baso kudeaketarako plan tekniko idazteko lanak. Adjudikazioa 7.979.060 pezetakoa da (BEZ barne).

◆ Malerrekako Euskaltegia

Malerrekako Euskaltegia (IKA) izena eman dezake euskara ikasi eta hobetu nahi duenak hilbartzaren 31 arte. Aski du 451555 telefonora deitzea aski du, 1996-97 ikasurteko bigarren eta azken matrikulazio kanpainaren barrenean.

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

IA 100 URTE
KALITATEA ETA
PROFESIONALTASUNA
ESKEINIZ



ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

ttipi-ttapa

TTIPI TXARTELA

Saltzaileak behar dira

TTIPI TXARTELA saltzeko. Baldintza ekonomiko interesgarriak. Interesatuak euskalduna izan behar du eta bere kontura lan egiteko kapazitatea. Deitu...

☎ **631188**

T Hiruhilabeteko Txokoa

Argitaratzailea: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)
Maketazioa eta Banaketa: ttipi-ttapa

Leitza eta
Goizuetako Euskara
Batzordeen
Argitalpena

Euskararen Berriak



Izenen erdiak baino gehiago asmatzen dituztenen artean Leitzaoko maketa bat zozketatuko da

Kaixo lagunok. Labur bada ere, hurrengo lerrootan euskara batzordeen zenbait berri ematen saiatuko gara, zuen interesekoak izanen direlakoan.

«Euskara Merkataritza mundura»

Kanpaina hau urtero egiten du Euskara Zerbitzuak. Herriko establezimenduei eskaintza hirukoitzaren egiten diegu:

- Itzulpen edo zuzenketa zerbitzua: jendaurrean jartzen diren paperak, prezioen zerrenda... euskaratzeko laguntza.

- Errotulua euskara hutssez jartzeagatik dirulaguntza.

- Euskararekin zerikusia duen edozein gairekin

aholkularitza: errotulua jartzerakoan zalantzak, hornitzaile euskaldunak...

Aurten bi bisitari joan dira Euskara Zerbitzuaren izenean, bata Areso eta Leitzaarako, bestea Arano eta Goizuetarako. Aipatu behar da, urtero bezala, errotulok euskaraz jartzeko proposamenak izan duen arrakasta. Aurten ere errotulok euskaraz jartzeko dirulaguntza-eskaerak ugariak izan dira.

Umeentzako aisialdia

Eguberrietako oportunitateak errotulok euskaraz jartzeko dirulaguntza-eskaerak ugariak izan dira. Aurten ere errotulok euskaraz jartzeko dirulaguntza-eskaerak ugariak izan dira. Sei begirale arduratu dira honetaz (hiru Leitza eta Areson eta beste hiru Arano eta Goizuetan), eta

lau herriotako ume guztientzako irekiak izan dira.

Honekin, euskararen erabilera ludikoa indartzeaz gainera, haurren aisialdian dagoen hutsunea neurri batean bederen estali nahi izan dugu.

Antzerkia

Antzerkizaletasunak bultzatutako bat hartu du egunotan, Leitza bereziki. Azkeneko urteotako oihurari jarraituz, aurten ere Leitza antzerki talde bat etorri zen bere lana aurkeztera. Sortu berria den Txalo taldeak "Xagu Tranpa" obra eskaini zion abenduaren 21ean zinean. 100 lagun inguru bildu dira eta espero bezala oso kalitate oneko lana eskaini

zigtuten.

Kanpotik antzerkilan ekartzeaz gainera, bertan ere antzerkigintza lantzea eta obrak prestatzea oso interesgarria iruditu zaigu. Alde horretatik ere berri onak. Leitzaoko Euskara Batzordeak proposatuta eta lagunduta, bertako jubilatuen elkarrekin talde bat lanean hasi da Goizuetako antzerkizale baten laguntzarekin eta bere zuzendaritzapean. Beraien lanaren fruituak geroago ikusteko aukera izanen dugu. Beste alde batetik, Leitzaoko gazte batzuk ere beste lan bat prestatu dute, eta hori ere oso interesgarria denez, Euskara Zerbitzuaren laguntza izanen dute Goizuetan eta Leitza ekitaldi bana egiteko. Leitzaoko emanaldia abenduaren 28an izan zen eta erabateko arrakasta lortu zuen. Zinea bete-betea eta ikusleak algara batean hasieratik bukatu arte. Benetan txalagarria gazteon lana. Hemendik zorian eman nahi dizkiegu, eta horrela jarraitzea animatu.

Toki-izenak

Norberak bere herria ezagutzea interesgarria eta atsegina izateaz gainera, aberasgarria da. Ezagutza hori sakontzen laguntzeko, Leitzaoko Euskara Batzordeak eta kultur taldeak herriko toki-izenen inguruko lehiaketatxo bat antolatu

hurrengo orrialdean segitzen du

Lana ilusioarekin

Abenduaren 8an, Areson Euskararen Eguna ospatu zen, azkeneko lau urteetan bezala. Neguko jaia da eta ohitura bat bihurtu da auzo guztien artean.

Guraso Elkarteak ki-deek antolatzen dute eta egun honetan beste zenbait auzo lagundu dute egun polit hau aurrera ateratzeko. Egitaraua: herriaren dauden trikitilariak aritu ziren. Herriko emakumeek talo bikain bat egin zuten. Herriko pilotariak ezin izan zuten jokatu eguraldi txarra egin zuelako. Eguerdian, herri bazkaria eta denak bapobapoz gelditu ondoren, Trikitilarien finala. Hemen kanpoko-bikote batzuk parte hartu zuten. Eta arratsaldean bukatzeko, soinuak, dantzak gustora aritzeko.

Egitaraua egiterakoan antolatzaileek ez zuten denbora gehiegi galdu, di-

rua ere ez, bere asmoa ez zelako gauza asko ekartzeko, herriko jendeak parte hartzea baizik. Parte hartzea eta giro polit bat sortzea, gainera. Baina diru gehiegi ez zuten gastatu, ez dutelako, eta jendearen laguntzarekin askotan gehiago egiten da. Ezin dugu ahaztu inork ez diela diru laguntzarik eman.

Eta jendeak parte hartu zuen, eta nola gainera. Egunduan ekuiluko lanak ahal izan zuten egin ziren. Denak baitzuten umeren bat eskolan, edo pilota ikasten, edo trikitixa jotzen edo dantza ikasten... Egunduan, Guraso Elkarteak bildu zuen dirua, urtean zehar antolatzen dituzten ikastaroetako edo ekitaldiatarako da.

Denek egin zuten lana beren muttiko edo neskatuentzat eta gainera giro euskaldun batean haztea nahi dutelako, herriko taldeak aurrera atera nahi dituztelako.

Hau da egun honetako helburua, jendea elkartzea eta mutiko-neskatoen lana ikustea, hauek ilusioarekin jarraitu dezaten.

Baina Guraso elkarteak bazituen zenbait ekitaldi gehiago prestatuta Eguberrietarako. Abenduaren 27an, adibidez, ume guztiak hartuta, eta zenbait gazte eta emakumeekin Bilbora joan ziren. Han, urtero bezala, Pin Parkea bistatu behar zuten eta egun bikain bat pasa lehengo alditan bezala. Egunduan, umeak Parkean dauden tramankulo guztitan ibiltzen dira eta han dauden jokuetan parte hartzen dute. Baina horrelako saltsan ibiltzeko, umeak festetan boletoak saltzen dituzte, eta gero zozketa bat egiten da.

Honez gain, orain saski eder bat prestatu dute gurasoek herriko eta Leitzako zenbait denden laguntzarekin.

Hau dena, esan dudana bezala, herriko jendearen

laguntzarekin egiten dute. Ez da lan makala, horregatik, guraso hauek egiten dutena, beraiek jartzen duten arreta eta ilusioa zoriondu egin behar dituzten dizkidazuen lerro hauetan. Gainera ezin dugu ahaztu eskolaren eztabailetan ibili direnean nolako gogoak erakutsi duten herriko eskola aurrera ateratzeko eta beraien umeek hoberena eduki dezaten.

Eta hau dena Areson, ez nuke ahaztu nahi Udalleteak Euskararen Eguna erekin eduki zuten jarrera azkeneko Plenoan, esanez beraiek ez zekitela egun hori egiten zenik. Herria aurrera ateratzeko denak batera tiratu behar dugu sokatik eta soka berdinetatik. Zorionak Guraso Elkarteak kideei eta beraiekin ibiltzen diren zenbait auzoei.

Urte berri ON TTIPI-TTAPAKO langile eta irakurle guztiei.

Eli Belaunzarán

du. Herriko etxe, baserri, mendi, paraje eta erreken izenak ongi ezagutzen laguntzeko. Horretarako, herriko buzoietan mapa mutu batzuk banatzen hasi gara, norberak bete ditzen. Mapan azaltzen den toki bakoitzak zenbaki bat du, eta zenbaki horri zein izen dagokion asmatu beharko duzue. Izenen erdiak asmatzen dituzten artean Leitzako maketa bat zozketatuko dugu. Erraza

eta atsegina da, eta gainera ikasteko modu bat, beraz, animo eta parte hartu. Ongi ateratzen bada, beste herrietan ere martxan jarri dezakegu.

Zure izen-abizen euskaldunak euskal grafiaz!

Nahi izanez gero, zure izen edo abizen euskaldunaren erdarazko grafia aldatzeko aukera badaukazu, bere jatorrizko

itxura berreskuratuz.

Horretarako zenbait tramiante egin beharko dituzu eta zure herriko euskara zerbitzuan informazioa eta laguntza edukiko duzu. (610636 edo 510310 telefonotara dei dezakezu).

Euskaratu zure izen-abizenak

“Rodrigetz”, “Belazketz”, “Billaberde” idatzi-ta ikusteak harridura sortuko liguke. Zergatik jotzen

ditugu normaltzat orduan “Cestau”, “Apecechea”, “Goicoechea” edo “Saralegui”? Zergatik abizen euskaldunak erdarazko grafiaz?


Gure izen-deiturak gure aurrekoek utzi diguten ondarea dira, euskal ondarea, eta askotan, gainera, euskararen lekukotasun aparta bilakatzen dira. Zoriturrez euskal abizenak erdal grafiaz ikusten ohitu gara, deformazio hau erabat arrunt bilakatu arte.



Aresoko neska-mutikoeek hainbat ekitaldi izan dituzte Eguberrietan.

Bitxikeriak

- **PASMATU:** Zauria gaiztatu, zornea edo edo materiala dariola jarri.
- **PEATU:** Ziria sartu. *"Eztigu gaizki peatu"*.
- **PERAKA:**
 - 1.- Ardiei arkeria daudenean, ume egiteko gelditu ez daitezen, jartzen zaien oihala.
 - 2.- Mespretxuzko kalifikatiboa. *"ori peraka!"*.
- **PERDESKA:** Balantzaka.
- **PIKOR:**
 - 1.- Larruazaleko erupzioa.
 - 2.- Hazi, ale.
- **PINPIRINDU:** Dotore jarri, apaindu,...
- **PIPITU:** Pipiek edo zerenek zulatu.
- **POTE:** Gezur. *"ori gezurtie! gaur ere pote earra sartu nahi zion"*.
- **PURRUSKATU:** Txikitu, desegin.
- **SAESTU:** Alde batera begira jarri.
- **SANGATU:** Sangeria egin, azinderi odola atera.
- **SARPIDE:** Etxe bateko biztanleekin konfidantza, laguntasuna izan.
- **SASOBE:**
 - 1.- Gaztetasun eta indarra, egoera fisiko ona.
 - 2.- Urteko garai edo denboraldia. *"Urte sasobe"*.
- **SATOL:** Xaguak harrapatzeko zepoa edo tranpa.
- **SATOR-LUR:** Satorrak bere zulotik kanporatzen duen lur pila.
- **SAUNKATU:** Saunka egin.
- **SERAIL:** Ongi osatua.
- **SESIOLLE:** Beti okasioan edo okasio prestatzen ari dena.
- **SISTU:**
 - 1.- Gurdia kargatu ondoren, meta egin ondoren, zintzilik geratzen diren belar-izpiak, istor-zoztorrak kentzea, bidean galdu ez daitezen.
 - 2.- Mukiak kendu.
- **SUANGILL:** Anfibia.
- **SUPAKI:** Lurreko su, beheko su.
- **SUSTRAI:** Aztarna.
- **TAKATAKO:** Kolpe.
- **TANTAR:** Muker. *"Ze tantarra dauken aur orre!"*.
- **TARTAR:** Asko hitzegiten duena.
- **TEKO:** Zapore desatsegina.
- **TENKOR:** Tantar, muker.
- **TENTU:** Tema, itsukeria, seta.
- **TETELDU:** Zozotu.
- **TIRAKILLON:** Etxean egindako ukendua..
- **TOLORTA:** Arraultz ustela.
- **TORTIKETU:**
 - 1.- Zikindu.
 - 2.- Sagar-pipittak, intxaup-pipittak jate-agatik gaizkitzea, gaixotzea.
- **TORTOKA:** Zuhaitzaren enborrean mordoka ateratzen diren adarskak.
- **TORTOLLO:** Pertsona zozoa.
- **TRAKATS:** Lan azkarra. *"Ori trakatsa darabilkie!"*.
- **TRAILLU:** Pertsona alaia, gaizpentsurik gabea.
- **TRAKESTU:**
 - 1.- Torpetu, ezin fisikoa izan. *"Gure attuna oso trakestu de, urte asko baititto"*.
 - 2.- Nazkagarria, aspergarria jarri. *"Edaten dunen, dena trakesten da"*.
 - 3.- Umore txartu. *"gure aurre trakestu de, loalek baitau"*.
- **TRAZA:** Azidentzat otea txikitzeko tresna.



Orain dela ehun urte Goizuetan gertatutako hilketa bat

XALBA INDAKOETXEA

Eguneroko bizitza gertakari arruntekin osatzen da batez ere, baina tarteka egunerokotasuna hausten duen zoritxarren bat ere gertatzen da. Horrelako zerbaiz jazo zen 1902.eko apirilaren 16ko gauean.

Hurrengo goizean lainoa oraindik altxatzekoa zela herritar batek gorpu bat ikusi zuen lurlean, ukitu zuen zer gertatzen zitzaien ikusteko eta eskuak odolez zikindu zitzaizkion. Ikara le-

pazurretik beheiti sartu zitzaien eta garrasika hasi zen. Jendea hurbildu zen eta haietako batek lurlean zegoenaren irribarre okerra ezagutu zuen: Francisco Iribarren zen, 21 urteko hernaniarra.

Jendea ustezko hiltzailearen bila

Segituan han bildutakoak Escudero abizeneko bat jo zuten erruduntzat. Hau 28 urteko iruindarra zen eta hildakoaren lagun mina omen zen. Goizuetatik Erreterera ura era-

mateko lanetan elkarrekin ari ziren.

Hilotzaren inguruan bildutako jendea ustezko hiltzailea apopilo zegoen etxera joan zen eta nahiz eta atea ukabildakada ia bota ez zen inor atera. Beraz hiltzailea ihes egin izango zen. Jendearen amorrua gero eta handiagoa zen eta herri guztia arakatzen hasi ziren, tabernak, Untza, Gutiberrogi eta Irilasko meategiak, etabar, baina inondik azaltzen ez Escudero.

Guardia Zibilak, azka-

rrak izaki kontu hauetan, apopilo zegoen etxeko atea bota eta seko lo harrapatu zuten hernaniarraren hiltzailea. Herriko gartzelan honela aitortu zuen:

“Biok elkarrekin bizi ginen. Ongi moldatzen ginen. Ez genuen sekula sesiorik izan. Bera ixila zen. Ni ez, baina berarekin bai. 16an, goizean, eztabaidan aritu ginen huskeria batengatik. Ez geunden mozkorrak. Ni oso lasai nengoen, bera ez, bera oso urduri zegoen. Ea zer zuen galdetu nion. Nire arazotan sartzeko erantzun zidan. Gero ez nuela ulertuko esan zidan, andre-gaiak utzi zuela. Nik garrantzirik ez emateko erantzun nion, berotzeko beste kabi bat harrapatuko zuela. Orduan sutan jarri zen. Ez nuen inoiz horrela ikusi. Eztabaidan aritu ginen eta ez zitzaigun asko falta itsasteko. Egunez ez ginen ikusi. Gaua heldu zen eta nik zer moduz zegoen galdetu nion. Berak goizekoa esan zidan berriro, iraindu eta labanaz mehatxatu ninduen. Hori ez nion onartu. Alkandoratik labana atera eta edozertarako prest nengoela adierazi nion. Hau esan nuenean gainera jausi zitzaidan labana eskuan zuela. Zorte txarra izan zuen, bere bularra nire bularraren gainera erori zen... Bertan hil zen. Nire labana gorputzetik atera nion eta alde egin nuen. Han gelditzeak ez zuen zentzurik. Eta ez nuen parterik eman ez zuelako erremediorik, ez sendagileak ez apaitzak etzuten piztuko botikekin edo errezoekin. Beraz, lotara joatea erabaki nuen. Zera esan nion nere buruari: Bihar harrapatuko dute gorpua eta hiltzailea... eta ezer ez da aldatuko”.

MALERREKA



Nafarroako Onddoari eskainitako monumento berria Elgorriagan

Onddoaren kofrade berriak izendatu zituzten Elgorriagan

Interpretazio Zentrua zabaldu nahi da errota zaharrean

TTIPI-TTAPA

Yolanda Barcina, Nafarroako Gobernuako Ingurugiro saileko kontseilaria, Juan Luis Irigarai, Osasuna futbol taldeko lehendakaria, Koteto Ezkurra erremontelaria, Pedro Osinaga aktorea eta Elgorriagako Francisco Martin eta M^a Teresa Ibarra arotzak dira Nafarroako Onddo eta Perretxikoen Kofradiako Ohorezko kide berriak.

Eraberean, kofradiako kide izandako Salvador Arotzarena eta Juan Mariezkurrenaren oroimenez meza izan zuten eta hauen lekukoa, kide bezala, beraien alargun eta seme-alabei pasa zien Jose Miguel Galarregi, Ko-



Onddoaren Kofradiako ohorezko kide berriak

Argazkia: ONDIKOL

fradiako lehendakaria eta Elgorriagako alkateak.

Bertzalde, herri ingururik oinez, bizikletaz, nahiz zaldiz egiteko moduko ibilbidea ere zabaldu zuten, Onddo Bi-

dea izenarekin eta bertan kokatu dute Nafarroako onddoari eskainitako monumentu berria. Azkenik, 150 haritz planta aldatu zituzten inguru hoietan.

Orain, Nafarroako onddo eta perretxikoen interpretazio zentru bat zabaldu nahi da Elgorriagako errota zaharrean eta ikastaro ezberdinak egin.

Iturengo Kultur Egunezko zozketaren bigarren sariduna ez da oraindik agertu

Zarea Jose Antonio Altxuk eskuratu zuen

IBAN ISASI

Errege bezperan egin zen Kultur Egunen barnean antolatutako zozketa. Afariaren ondotik eta Kristianen akordeoi soinuen artean tarte bat eginda, soinulariak berak ateratu zuten zorbakiak. Sarituak honako hauek dira: Zare bat 2.710 zorbakiari (Altxunea erretegiaren saldua). Afaria Altxunea erre-

tegiaren 2.656 (Javier Bereauk saldua). Lehenengo sariaren jabea gau berean ateratu zen, Jose Antonio Altxu, hain zuzen. Bigarren sariaren irabazlea berriz, oraindik ez da agertu. Beraz, txartelaren jabeak hilabeteko epea dauka Kultur hilabeteko antolatzaileetako bati ailegarazteko, bertzenaz, inauterietan egiten baita zozketa berria.

Futbito taldea

Taldea osatu dute Iturengo gazte batzuk, inguruko zenbait herrietan antolatu den futbito txapelketan parte hartzeko. Nafarroako Federazioak eramanen ditu araudiari buruzko xehetasun guztiak.

Bertzalde, aipatu **Isidro Bazterrikak** berriz ere saria eskuratu duela zerriei buruzko lehiaketa famatu batean. Zorionak!

'Loihak' musika taldea sortu da Zubietan

Arrakasta izan du eskualdean

AINHOA MUTUBERRIA

Gaurgero mundu guztiak jakinen du Zubietan musika talde elegante bat sortu dela. Bere izena Loihak da. Pixkanaka-pixkanaka, ahal zuten lekuan entsaiatzen hasi ziren eta begira orain, kontzertuak eta dena egiten dituzte. Gaur egun musika mota azkarki dago, gustoak bezain hainbeste. Beraz, baten batek gustokoa ez baldin badu ere, bihotza pozten zaio gure herriko

mutilek egiten duten musika entzunez. Bi aldiz publikoan jo dute eta hurrengo saioa San Anton egunean egiten dute (urtarrilaren 17an), beste talde batzuekin batera. Aspalditik ez zen izan hainbeste jai gure herri honetan. Ikusten dugu ikusten, edozein aitzaki ongi datorkigula parranda egiteko. Beharrik! Hau gutxi izango balitz bezala, gero inautik datoz. Urteak hasi besterik ez du egin eta inauteriak ganean dauzkagu.

GOIZUETA

Datu kezkarriak eman ditu azken udal erroldak

Mila biztanletik behera jeitsi da herriko populazioa

ESTEBAN AROZENA

1996ko errolda edo padroiak emandako datuak onak direnik ezin da esan, besteak beste, biztanlegoaren jeitsiera kezkarria nabarmentzen delako bertan.

Azken urteotan mila lagunetik gorako kopuruari nolabala eutsi bazaio ere, oraingoan goitik beherakoa gelditzen izan da, eta 944 biztanle zituen herriak erroldako datu hauek bildu zirenean. Hauetatik 512 gizonetakoak dira eta 432 emakumeak.

Herriko Etxean esan zigitenez, Goizuetarentzat kalterako da 1.000 biztanletatik jeistea, Iruñak ematen dituen laguntza batzuk murriztea baitakar horrek. Herrian bertan ere na-



Bertso-paper lehiaketako sariak

Eguberrietako oporrak hartu aurretik Bertso-paperen lehiaketa antolatu zuten herriko eskolan bertako ikasleentzat. Hirugarrenetik zortzigarren maila arteko gehienek parte hartu zuten eta argazkian daukazue sariak eskuratu zituzten idazleak.

Argazkia: Miren Terese

barituko dira honen ondorioak, batez ere udal hauteskundeak ailegatzten direnean, oraingo 9 ordezkarien lekuan 7

hautatuko baitira 1999an. Beraz, alkateak eta sei zinegotzik gobernatuko dute herria. Biztanlegoaren jeitsi-

erarekin batera, herri-tarren batez besteko adinaren igoera ere nabarmentzen da. Horrela, biztanlegoaren %26a

bakarra da 0tik 29 urte bitartekoa; %46a 30tik 60 bitartekoa da; eta azkenik, %28ak 60 urte baino gehiago ditu.

Depuradoraren lanak

Construcciones Amenabar-en esku gelditu dira herriko depuradoraren obrak, Nilsak enpresa gipuzkoar honen eskaintza hautatu baitu aurkeztutako guzuzien artean. Otsailaren lehen egunetan hasi daitezkeen lan hauek 80 milioi pezetatan egingen dituzte.

Faisai ehiza

Basauntz ehiztarien elkarteak herrian sekulan egin ez den ekinzabati ekin zion hilbeltzaren 4an: faisaien ehizaldiari. Partaidetza ikaragarriarik ez bazen izan ere, antolatzaileak pozik agertzen ziren Umore Onan bazkaldutakoan, goizean faisai kopuru polita harapatzeaz gain, elkartasun giro paregabea igaro baitzuten eguna.

ARESO

Balinezko eskopetekin faroletan kalteak egin dituzte

Udaletxeak bandoa plazaratu du honen berri emanez

JUANA M^o SAIZAR

Herriko gaztetxoak balinezko eskopetekin ibiltzen direla eta, herriko faroletan kalte ugari sortu dituztela ikusi du Udalak. Denbora gutxi barru lau aldiz konpondu behar izan dira eta gastu dexente suposatuko du herriarentzat. Beraz, hemendik aurrera, bere haurrak herrian kalteak sortzen badituzte gurasoak izango dira arduradunak.

Erreziboetan akatsak

Udaletxeko azken erreziboetan hainbat akats ikusi izan dira, beraz, konturatzen bazarete, lehenbait lehen idazkariarengana joan

erreklamazioak egitera, hurrengorako arazoa konpontzeko.

Elizako lanetarako dirulaguntza

Elizaren obrako gastuentzat, kalefakzioa eta tximistorrata, alegia, 150.000 pezetako dirulaguntza eman du udalak, azken plenoan hartutako erabakian.



Haurren antzerkia

Eguberrietako oporren aurreko azken klase egunetan eskolako neska-mutikoei antzeslanak eskaini zituzten

Argazkia: Juana M^o

❖ **Auzolanetako** ordentza berria egin du udalak. Ikusi eta alegiazorik egin nahi izanez gero, hilabeteko epea dago.

❖ **Errolda** edo padroi berriaren arabera 310 biztanle gaude herrian, hauetatik 159 gizonetakoak eta 151 emakume.

Ihauteriak hilbeltzaren 25etik 28ra ospatuko dira

Larunbatean herrian eta astelehen eta asteartean auzoetan ibiliko dira

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 25, 26, 27 eta 28an ihauteriak ospatuko ditugu. Hau idazterakoan egitaraua osotara zehaztekoa badago ere, ekitaldi batzuen berri emateko moduan gaude. Ohitura den bezala, larunbatean herrian eginen da eskea eta astelehenean, goizeko 9etan aterako dira eskelariak Gorritzaran, Erreka eta Arkiskilera eta asteartean, Erasoterra. Bueltarakoan eskelariak Aurreran bazkalduko dute. Astelehen arratsaldean parke mugikorra izanen da frontoian umeentzat eta asteartean eskolako umeek atsogetututa joanen dira kalejiran plazara *Incansables* txarangaekin. Ondoren txokolatea emanen zaie. Egunero *Incansables* txaranga arituko da eta igandetik asteartera musika izanen da plazan iluntzean.

Bestalde, IKA euskaltegikoak, astelehenean urtero egiten zituzten bertso saioa eta



Euskaraokea Leitzan

ETBko Euskaraoke programakoek Leitzan grabatutako saioak aurreko astean zehar ikusteko aukera izan dugu. Ez dute ez "martxa" makala gure gaztetxoek

Argazkia: JOSEBA

afaria ez dituzte antolatuko. Gero eta jende gutxiagok parte hartzen zuela eta, beste proposamen batekin datozkigu: Leitzarren arteko kanta saioa antolatzea zineman. Ekitaldia aurrera ateratzea denon esku dago. Parte hartzeke euskaltegiko irakasleei izena eman behar zaie hilaren 20a baino lehen.

Iruñeko espexera eskaria

Udalak Iruñeko espexeko zuzendariari eta espexe-zaintzako epaileari, Oskar Astibiari hirugarren graduari dagozkion bizi baldintza lehenbailehen ezar diezazkion eskatu die. Jakinen duzenez, Oskar bigarren graduari dago, hau da Iruñako espexean preso. Akordio ho-

nen berri zuzenean emateko asmoz, espexeko zuzendariari bilera eskatu diote, baita Oskarrekin hitz egiteko baimena ere.

Zinema

Datorren ostiralean eta igandean "*Pena de muerte*" eta igande arratsaldean "*En busca del valle encantado*" pelikula ikusi ahal izanen dira zineman.

flash

Dantza ikastaroa

Aurreko larunbatean, Aurrerak antolatutako dantza ikastaroa hasi zen. Larunbatero eskolako gimnasioan, 6etatik 8etara izanen diren saioetan salsa, merengue, chachacha, swing, rock&roll... dantza ikasteko aukera izanen da. Hileroko matrikula 2.000 pezeta da eta ekaina arte aritzeko asmoa dute.

600.000 pezeta

erabiliko dira Leitzan-Larraunaldean beira kontenedoreak erosteko. Kopuru horretatik 420.000 pezeta Leku Administrazio Departamenduak ordainduko ditu.

Alde Zaharreko

gas-sareaz aprobetxatzen direnak 15.000 pezetako kontribuzio berezia ordaindu behar dute (gainontzeko herri-tarrek ere kopuru hau ordaindu zuten). Udala ari da obra egiten, bere langileetaz eta INEMen bitartez kontratatutako beste hiru-taz baliatuz (gasaren tuboak jarri ezik).

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

ttipi-ttapa
6.300 harpidedun
22.000 irakurle

Gure soinu atseginez gozatu zure elkarteetako ospakizumetan ezkontza, sagardotegi, jaumartze eta herriko jaietan

PANDEROA-TRIKITRIXA
BAJUA-GITARRA

Ezazu Ezazu Ezazu

TRIKITRIXA
TALDEA

Deitu eta hartu gure aukera

948-637907 (Lesaka)
943-493007 (Oizartzun)

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontza pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

BAZTAN

Herrietako alkateak aukeratzeko bozketak errelista guti izan zuen oraingoan ere

Erratzu eta Arizkunen eman zituzten bozak, gainerakoetan alkategai bakarra

JOSEBA IGARABIDE

Eguberri aituzineko igandean aukeratu behar ziren Baztango hamabortz herrietan, bi urteotan alkate izanen direnak eta ez zuen errelista haundirik izan bozketak honek.

Arizkun eta Erratzun bakarrik eman zuten beraien iritzia, bi lagun aurkeztu baitziren alkate izateko animoarekin. Arizkun 101 boza eman ziren, horietatik 84. Juan Jose Garbalena alkate berriarentzat. Erratzun berdinuagoa egon zen bozketak eta lehendik alkate zen Juan Luis Karrikaburuk 61 boza hartu zituen bitartean, Xabier Ospitalek 57 lortu zituen.

Zortzi herrietan, orain arteko alkateek segituko dute, ez baitzen bertze inor presentatu eta hauetatik hirutan (Gartzain, Arraioz eta Oronoz), hirugarren aldia izanen dute alkate berarekin. Aniz eta Elbeten alkate berriak (Marcelino Rementegi eta Jose M^a Jauregi) bozketak egin gabe aukeratu zituzten.

Almandoz, Ziga eta Elizondon, ordea, ez zen inor aurkeztu lehen deialdian eta Eguberri eta Urteberri egunetan aukeratu zituzten 1997-98rako alkateak.

Ondoko koadroetan ageri dira herrietako alkateen argazkiak eta datuak (adina, lanbidea, zenbagarren urtez alkate), baita datozen bi urtetarako dituzten asmo nagusiak.

<p>Almandoz</p>  <p>Xeberino Landa Lanerako ez gaitua 57 urte (1.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ura ekartzea Sastratik • Frontoia moldatu, ura sartzen baita. • Argiak eta herriaren sarrera moldatu. (espaloiak, etab...) 	<p>Amaiur</p>  <p>Bernardo Amiano CSlko langilea 44 urte (3.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erdiko-bidea asfaltatu • Artiko bidean zubia egin. • Pizsina egitea ere burutan dauka. 	<p>Aniz</p>  <p>Marcelino Rementegi Aurrejubilatua 54 urte (1.urtea)*</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eliza moldatu eta pintatu. • Urak hondatutako bideak zementua eman. <p>* Orain 6-7 urte alkate izan zen</p>	<p>Arraioz</p>  <p>JoxeAnt^o Bergara CSlko langilea 47 urte (5.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eliza moldatu. • Karrikak zolaberritu. • Kanposantua haunditu eta moldatu. • Saihesbidea ere egin behar da. 	<p>Elbeta</p>  <p>Jose M^a Jauregi Garraiolaria 48 urte. (1. urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argiak eta karrikak zolaberritzea. • Eskola eta frontoiaren moldaketa. • Kanposantua moldatu.
<p>Elizondo</p>  <p>Antonio Aldako Aurrejubilatua 53 urte (1.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kargodunekin batera zehaztu behar badu ere, herriandako autonomia gehiago nahi dute eta hasitako zenbait proiektu akitu. 	<p>Erratzu</p>  <p>J.Luis Karrikaburu Zurgina 44 urte (1.urtea)*</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inbarbilan argiak. • Gorostapolon argiak eta saneamendua. • Zenbait pista moldatu • Azkaraten ur-depositoa <p>* Orain 2-3 urte alkate izan zen</p>	<p>Gartzain</p>  <p>Bautista Arretxea Nekazaria 48 urte (5. urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriko saneamendua eta argiak akitu. • Mendietako pistak zementoz eman. • Iturriak konpondu. 	<p>Irurita</p>  <p>Maribel San Jose Etxekoandrea 48 urte (2. urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Plaza konpontzea eta mediku kontsulta egin • Hirurteko Plangintzan hainbat eskari eginak daude: saneamendua, konponketak... 	<p>Lekaroz</p>  <p>Pedro M^a Oskariz Baztan Panifikadoran 37 urte (3. urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriko eskola konpondu eta zenbait gela egin (aretoa, biltegia...). • Bide batzuk egitea (Hirurteko Plana).
<p>Ornoz</p>  <p>Florentino Goñi CSlko langilea 44 urte (5.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Frontoia moldatu. • Hamabi urte arteko haurrendako eskola egin herriaren lur eremu batean. 	<p>Arizkun</p> <p>Juan J. Garbalena Jubilatua 61 urte (1.urtea)</p> <p>«Oraindik ez dut ja pentsatu».</p> <p>Azpilkueta</p> <p>Fermin Barazabal CSlko langilea 48 urte (3.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baserrietako bide batzuk zementoarekin estali. • Frontoian argi haundigoak paratu eta pintatu. 	<p>Berroeta</p> <p>Jesus M^a Gamio CSlko langilea 40 urte (3.urtea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saneamendu proiektua aitzinera ateri. • Kanposanturako bidea moldatu. <p>Ziga</p> <p>Celestino Elizalde Baserriko Lanak 42 urte (1.urtea)</p> <p>• «Oraindik ez dut deus ere pentsatu».</p>	<div style="background-color: black; color: white; padding: 10px;"> <p style="font-size: 2em; font-weight: bold; text-align: center;">ttipi-ttapa</p> <p style="font-size: 1.5em; font-weight: bold; text-align: center;">TTIPI TXARTELA</p> <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold; text-align: center;">Saltzaileak behar dira</p> <p>TTIPI TXARTELA saltzeko. Baldintza ekonomiko interesgarriak. Interesatuak euskalduna izan behar du eta bere kontura lan egiteko kapazidadea.</p> <p style="text-align: right;">Deitu... 631188</p> </div>	

Aurtengo iñauteak martxan dagoeneko

Aniz eta Berroetako gazteek elkarrekin ospatu dituzte

PABLO MENDIBURU

Gan den ortziralean, Anizko elkartearen egin-dako bazkariarekin hasiera eman zioten iñauteei aniztar eta berroetarrek. Bazkalondoan Anizen etxez etxe ibili ziren eta puxkekin afora eta biharamoneko gosaria egin zuten. Larunbatean Berroetan ibili ziren, gosaldurik ondotik etxez etxe ibili eta akitzeko, afora eta soinu izan zutelarik Gure Ametsa elkartearen.

Berroetako eskola

Herriko umeen gurasoek bilera izan zuten eskola berriz martxan paratzeko asmoz. 11 haur daude eta hauen gurasoek sinadurak jasoz zizuten. Iruñetik bidali behar duten erantzunaren zain daude.

❖ **Urak Berroetako** Marieri bidea eraman



Lau bildots umatu ditu ardi batek Almandozen

Almandozko Mendiola auzoko Etxotoa baserriko ardi honek lau bildots erditu ditu umaldi berean. Rafael eta Norberto Agerrek zaintzen duten ehun ardiko artaldean eta ingurukoetan ere, seguraski, lehen aldia da honelako umaldi bat suertatzen dela. *"Hirukiak eta honela bai, baina zuzenean aharreak estalita, naturalki, laukiak sortu diren lehen aldia da"* diote Etxotoakoek.

zuen oso-osorik.

❖ **Berroetako** bestak komisio batek presatuko ditu. Almandozen berriz, Fran Sarra-

tea, Juan Carlos Erolot, Koxki Mitxeo eta Maite Oskoz hautatu dituzte iñaute eta besta batzordetarako.

❖ **Almandoztarrek** urtero Auñamendin egiten duten bazkaria pasaden igandean egin zuten, giro bikainarekin.

flash

- ❖ **Kintoko larreak**
Nafarroako Gobernuak 4.713.387 pezetako taloia eman zien Baztan eta Erroko alkateei Kintoko larreetan bazkatzea uzteagatik. Egia erran, Iparraldeko abeltzainak dira dirua ordaintzen dutenak Nafarroako Gobernuaren bidez.
- ❖ **Nafarroako Txirriindulari Itzulia**
Ekainaren 3tik 8ra burutuko da 36. edizioa eta etapa bat Elizondon bukatuko da. 750.000 pezetako dirulaguntza eman du horretarako Balleko Etxeak.
- ❖ **Arraiozko saihebidetaren** proiektua egiteko 264,9 milioi pezetako gastua onartu du Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide sailak. 230 milioi aurtan ordainduko dira eta gainerako 34,9 milioi datorren urtean.

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

SAS KAITZ
fontaneria calefacción

GA

Empresa colaboradora de **REPIOL** AVIANO

Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO

Tfnoak: 580373 • (908) 776176

Beatriz

Lurrindegia eta apaindegia

© 580283 • Santiago 53 • ELIZONDO

Zorionak eta Urte Berri On

Opariak, markako kremak eta parfumeak

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

INAUTERIKO TELAK:
Klase eta kolore guztietakoak

ESKULANETARAKO MATERIALA:
Klase guztietako materialak

TENPORADAKO ARROPA ETA TELETAN MERKEALDIK

ARLA ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak freskagarriak

Santiago 56 • ELIZONDO

☎ 453266 (etxekoak) ☎ 452473 (bodega)

JATETXEA

Tfnoa: 580101

Santiago 1 ELIZONDO

Galarza

ZUGARRAMURDI

Maestruen Etxea Akelarre elkarteari utzi dio Herriko Etxeak

Aparkalekuan ere bertze lokal bat egingen da

MARGARI ETA KORO

Azken urte hauetan erabiltzen ez den Maestruen Etxea, Akelarre elkarteari utzi dio Herriko Etxeak, bere beharrentzat. Orain arte talde hunek ez zeukan toki propiorik bere bilerak eta ekintzak egiteko, bilerak udaletxean edo ostatutan egiten zituen. Ikastaroak, berriz, ospital zaharrean antolatzen ziren.

Gai huni buruz ere, eta aintzina begira, Herriko Etxeak bertze akordio hau hartu du: aparkalekuko eremuari 224 m² ekendu lokal bat egiteko, herrian antolatzen diren ekintzatarako toki egoki bat izateko. Alde batetik biltegi bezala erabiliko da (zikiro eta gaupasako tresnak direla eta), eta bertzetik edozein solasaldi, antzerki edo ha-



Azken urteetan erabiltzen ez zen Maestruen etxe zaharrak izanen du nork erabili hemendik aitzina: Akelarre elkarteari, bilerak eta ekitaldiak egiteko utzi dio Herriko Etxeak

Artxibokoa

lakoetarako prestatua, komunak eta dutxak barne.

Euskaraokea

Zurumurruek diote udaberri aldera Euskal

Telebistako "Euskaraokea" programakoek alde honetara etorriko zaizkigula. Sara, Ainhoa, Urdazubi eta Zugarramurdiko umeak herri batean bilduz graba-

zio bat egingen omen da. Haurrak, portzikaso ere hasi zaitezte kantuak entsaiatzen eta zintzurak zaintzen... hala ez bada ere, musikak bizitza alaitzen du.

Atxuriatik Larrunerat ipuin lehiaketan urdazubiarra eta zugarramurdiarra sarituak

Bertzalde, Atxuriatik Larrunerat ipuin lehiaketan aipamen berezia jaso dute Zugarramurdi eta Urdazubiko bi idazle gaztetxoren idazlanek. Xabier Etxeberria Bengoetxea urdazubiarraren 'Arrano Beltza eta Txuriak' ipuinak epaimahaiaren aipamena jaso zuen A mailan (9 urte artekoak).

Maite Anziart Camino zugarramurdiarraren 'Bi gizon haserre' ipuinak ere aipamena jaso zuen B mailan (10 eta 11 urtekoak).

Lehiaketaren epaimahaia osatzen, bertzeak bertze, Koldo Ametzoi ipuin kondalaria zegoen.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

 **ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua



Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

muñeca de Trapo



IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Elbarrungo hilerriaren zabaltzea eta zonbait dirulaguntza on hartu ziren

Kontseiluak honela erabaki zuen azken batzarrean

JACQUELINE ETA MIXEL

Iragan azaroaren 22an Herriko Etxean bildu ziren Kontseiluko gizonak Aniotzbehere auzapezaren inguruan. Karia hortarat aipagai izan zituzten gaien artean bien aipamen berezi bat eginen dugu.

Elbarrungo hilerriaren zabaltzea beharrezkoa dela erabaki zuten lehenik. Ikusiz hilobien galdeak ez direla ttikitzen hilerri berriaren haunditzea, eremua 5.000 metro karratutan haundituz. Elbarrungo hilerri hau 1978an egina da eta leku gehienak hartuak edo geldituak izanki, berte hainbertze eremuren galdea badago. Orain bete behar diren urratsak bete behar dira ondoko lurra- ren eskuratzeko eta lehenbailehen proiektua- ren gauzatzeko.



Sarako ihiztarien gorabeherak

Ihiztariak izigarritzko balentria egin dute abendoaren 15ean, hamar basurde hilez Olhain eskualdean. Orain arte 22 hilak dituzte, baita bi basauntz ere (hauen ihizia bitarant mugatua da).

Bertzalde, dirulaguntza hauek onhartuak izan dira: *Les Amis de l'Ecole Publique* erakundearentzat 1.000 libera, Kultur Hilabetea-

rentzat 3.000 libera eta Euskal departamenduari buruzko hautetsien elkartarako 2.000 libera. Orotarat 6.000 libera- ren laguntza eman da.

Atxuriatik Larrunerat ipuin lehiaketa

Zonbait saratar sari- tuak izan dira Atxuriatik Larrunerat ipuin lehia-

ketan, goi mailako idaz- lanak aurkeztu baititu- zte.

A mailan (9 urte ar- te), Maider Mendion- deren *Atxuria Larun* ipuinak eta Lia Ivan- dekick neskatoren *Mendia* ipuinak aipa- men berezi bana jaso dute, Azkaingo Maylis Goienagaren *Ibilaldi bat mendian* ipuinak bezalaxe. Guztira 126 idaz- lan aurkeztu ziren mai- la honetan.

B mailan berriz, (10- 11 urtekoak) 86 lan aur- keztu ziren eta horien artean ere saratarrek ja- so dute aipamenik. Elorri Larroquet-en *Larun mendia* eta Cristelle Ameztoren *Oihu bat mendian* ipui- nek jaso zuten aipame- na, bertzeen artean.

Bistan denez, neska- mutikoen Mendia gai- ri buruz idatzi behar zu- ten lehiaketa huntan.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Telefono mugikorra: 989. 706614
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

ERTZILLA

ALBAITARITZA KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 2etara
Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, ☎ 580627
Larrialdia: ☎ 580762
ELIZONDO

EZKONTZAK

Simon Ballarena Hualde eta **M^a Isabel Arozena Etxeberria**, Elizondo eta Almandozkoa, abenduaren 14an.
Andoni Irigoien Maritorea eta **M^a Cristina Urrutia Juanikotena**, Ziga eta Amaiurkoa, abenduaren 27an.
Francisco Javier Sanzberro Iturria eta **Benita Telletxea Perugorria**, Etxalar eta Berakoa, azaroaren 30ean.

JAIOTZAK

Jon Inda Irigoien, Doneztebekoa, abenduaren 18an.
Fermin Larralde Cordoba, Elizondokoa, abenduaren 2an.
Aitor Almandoz Elizalde, Lekarozkoa, abenduaren 5ean.
M^a Concepcion Etxeberria Osakar, Zigakoa, abenduaren 17an.
Pello Mari Arretxea Bikondoa, Irurita-koa, abenduaren 29an.
Idoia Telletxea Salgado, Elizondokoa, urtarrilaren 2an.
Loreila Olaso, Sarakoa, abendoaren 18an.
Jon Olaizola Otxoteko, Lesakakoa, abenduaren 8an.
Ane Gurrutxaga Errandonea, Lesakakoa, abenduaren 10ean.
Imanol De Rueda Goñi, Lesakakoa, urtarrilaren 4ean.
Hodei Unision Mendigutxia, Berakoa, abenduaren 14an.
Ainhoa Alzuguren Mitxelena, Berakoa, abenduaren 19an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
 polit bat oparitzen diegu. Amendako
 "Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Iruriko Uda Auzoko Kutxa

HERIOTZAK

Pierre Laborde, Sarako Larraburuakoa, abendoaren 13an, 64 urte.
Margarita Zamora, Sarako Garbala-koa, abendoaren 16an, 53 urte.
Jose Martin Etxeberria, Doneztebekoa, abenduaren 20an, 70 urte.
Francisco Loiarde Eskudero, Goizuetakoa, abenduaren 12an, 71 urte.
Ceferino Alba Loiarde, Goizuetakoa, urtarrilaren 5ean, 85 urte.
Catalina Astibia Larrea, Leitzakoa, abenduaren 10ean, 83 urte.
Antonio Etxeberria Agerre, Arraioz-koa, abenduaren 26an, 67 urte.
Juan Ariztia Dufurrena, Irurita-koa, urtarrilaren 3an, 84 urte.
Mercedes Irigoien Bergara, Azpilkuet-akoa, urtarrilaren 6an, 82 urte.
Juana Mikelperizena Zelaieta, Berakoa, abenduaren 27an, 82 urte.
Jose Maria Etxandi Jorajuria, Elgo-riagakoa, abenduaren 22an, 84 urte.
Lorenzo Zelaieta Endara, Berakoa, urtarrilaren 1ean, 85 urte.
Santiago Etxeberria Irizarria, Arant-za-koa, abenduaren 28an, 90 urte.
Francisco Lazkano Arrieta, Arantz-za-koa, abenduaren 25ean, 68 urte.
Milagros Bergara Ariztegi, Arantz-za-koa, urtarrilaren 4ean, 76 urte.
Joaquina Juankorena Agesta, Sunbi-llakoa, urtarrilaren 4an, 88 urte.
Eustakio Loiarde Elizalde, Zubietakoa, abenduaren 20an, 62 urte.
Juan Baleztena Arozena, Zubietakoa, abenduaren 20an, 81 urte.
Benita Lizasoain Oteiza, Gaztelukoa, abenduaren 27an, 84 urte.
Angel Mindegia Garro, Doneztebekoa, urtarrilaren 4an, 81 urte.

BAZAR LA MASCARA



- ✂ Inauterietako mozorroetan dena daukagu
- ✂ Osagarri mota guzien alokairua eta salmenta
- ✂ Festen prestakuntza
- ✂ Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras 6, Tfnoa: 25 00 04 • Faxa: 25 00 04 • **3 1007 IRUÑA**

Paxkal OXANDABARATZ

Kultur-hilabetearen balorazioa



Kultur hilabetearen bilana egiteko orduan, orokorki biziki ongi pasatu dela erranen nuke. Mintzaldiak interesantak eta erakasgarriak izan dira, hitzlariak hizkera aberats bat zutelarik, entzuleak kopuru handian etorri

dira. Zugarramurdi bertsotxiste afaria giro ezin hobean pasatu da. Literatur lehiaketa azpimarratu nahiko nuke lehen urtea baita horrelako saio bat antolatzen gurena. 210 haurrek parte hartu dute, eta iparhegoaldearen arteko harremanak haurtzarotik hasia guziz eraginkorra bilakatuko dela pentsatzen ahal liteke.

Lamixene BAT antzerki taldeak haren azken lana aurkeztu zuen eta ongi txalokatua izan zen. Zugarramurdiko gaupasan eta Sarako kantaldian, berriz, espero baino jende gutiago bildu da.

Etorkizunera begira pentsatzen dut orain ohitura bat bilakatu dela eta jende ainitz egoiten dela begira ikusteko zer proposatuko dugun. Gure harremanak sendotzeko, azkartzeko eta normalizatzekeo manera ezin hobea iduritzen zait.

Bainan horrelako kultur hilabete baten antolaketak lan asko galdetzen du, eta otsailan bilana eginen den bilkuran ikusiko dugu nor den prest eta nork duen denbora arduraren berriz lan horri lotzeko.



Mintzaldiak interesantak eta erakasgarriak izan dira, hitzlariak hizkera aberats bat zutelarik, entzule andana etorri zen.



B mailan (11 eta 12 urtekoak) sarituak suertatu ziren gaztetxoak

Atxuriatik Larrunerat literatur lehiaketan 212 lan

Mikel Telletxea beratarra, B mailan, eta Aintzane Pikabea aranztarra, A mailan, izan ziren garaileak

Abenduaren 22an egin zen sari banaketa. Jende aunitz bildu zen Sarako Omordia salan, literatur lehiaketaz aparte, Koldo Amestoyren ipuin kondaketarekin gozatzeko aukera baitzegoen.

Ipuin lehiaketan bi maila zeuden. A maila (ipuinak), 9 urte artekoentzat eta B maila (narrazioa), 12 urte arte. Bi kategorietan gaia berbera izan zen: «mendia». Partehartzea uste baino haundiagoa izan zen, eta lehiaketara aurkeztutakoen mailarekin ere kontent agertu dira epaimahaikideak.

A mailakoetan, 126 lehiakideren artean Aintzane Pikabea aranztarra-

ren 'Azeria eta ardia' ipuina izan zen hautatua, bigarren saria 'Sarako mendian' Ander Mitxelena beratarren lanarentzat izan zen bitartean. Bi sari nagusiekin batera 13 aipamen berezi partitu ziren lehiakideen artean: Maite Agirre, Izaskun Agirre, Julen Espinosa, Fermin Berueta, Iñigo Jauregi, Irantzu Etxebeste, Nerea Sorondo, Ainhoa Retegi eta Ibai Iturria beratarrentzat, Maider Mendionde eta Lia Ivandekick saratarrentzat, Maylis Goienaga azkaindarrentzat eta Xabier Etxeberria urdazubiarrarentzat.

B mailakoetan, aldiz, Mikel Telletxea beratarra izan zen garaile, 'Kontrabandoa' lanarekin. Igantziko Miren Mitxelenarentzat izan zen bigarren saria, «Eusebioaren etorrera» narratioarengatik. Hemen ere lanen kalitatea ikusirik 10 aipamen berezi ematea erabaki zuen juradok: Izaskun Agirre, Lorea Sarobe, Josu Igoa, Mattin Etxabide eta Igor Vázquez beratarren, sarako Elorri Larroquet eta Cristelle Ameztoti, Maite Anziart zugarramurditarra, Lurdes Larrabal igantziarra eta Natalia Goñi aranztarrentzat izan ziren aipamen bereziak.

ttipi-ttapa

TTIPI TXARTELA

Saltzaileak behar ditugu

TTIPI TXARTELA saltzeko. Baldintza ekonomiko interesgarriak. Interesatuak euskalduna izan behar du eta bere kontura lan egiteko kapazitatea. Deitu...

631188

Eduardo Eugi igantziarrak hemeretzi aldiz altxatu zuen lasto-fardo

■ Nafarroako marka berria ezarri zuen Leitzan

■ Bertze bi errekor berri ezarri ziren abenduaren 22ko saioan

Eduardo Eugi igantziarrak bi minututan hemeretzi jasoaldi eman zizkion 45 kiloko lasto-fardoari, lehendik berak zuen marka baino bat gehiago. Hori izan zen Leitzako saioan hobetu ziren Nafarroako hiru errekorretako bat.

Marta Garciak, 25 kiloko txingekin aisa hobetu zuen Lurdes Tellecheak zuen marka (308 metro), 21 plaza baino gehiago egin baitzituen (598,30 metro).

Ultzamako zakulari hirukoteak (Patxi San Martin, Gabriel Jubera eta Imanol Irure) berriz, 26 ehunenekotan hobetu zuen beraiek zuten marka eta 360 metroak 1' 30" eta 62 ehunenekotan egin zituzten.

GAINERAKOETAN EZIN MARKARIK ONDU

Jaime Etxegarai beratarra markatik segundu batera gelditu zen koxkor biltzen eta Patxi Larretxeak 30 jasoaldi eman zizkion 100 kiloko harriari, baina bere errekorra 31 tan da-



Eduardo Eugi errekorrerako bidean Egin

go. Hameka probetan hobetu behar ziren aurreko markak, baina

Kristina Saralegik ezin izan zuen aizkora saioan parte hartu, lesioa-

gatik. Proba konbinatuan lorturiko markak ere ez zuen baliorik izan, Amazabal pilotalekuak ez baititu beharrezko neurriak ematen korrika saioa egiteko.

Arpanean, Pikabea anaiei marka bere hortan mantentzen da, Kañamares anaiek bi minutu gehiago behar izan baitzituzten kanaerdikoari 25 epai egiteko.

18 kiloko ingudea altxatzen, Etxauri Haraneko Roberto Lakostak jardun zuen eta Loiartek baino 5 jasoaldi guttiago, 81 hain zuzen, egin zituen minutu terdian.

Azken proba aizkolariena izan zen eta Donato Larretxea nagusitu zen, 20 segunduko alde atereaz Floren Nazabali. Halere, Mikel Mindegiak baino 2' 16" gehiago behar izan zituen aranztarrak etzandako lau kanaerdikoak eta zutik zeuden biak mozteko.

Beraz, joan den urtean baino marka bat gehiago ondu zen.

BOITE *prenton*

❖ Donostiako

San Silvestre laisterketa irabazi zuen Rafa Maritxalar laisterkalari lesakarrak. Bertzalde, Nafarroako Club arteko cross txapelketa Beste Iruña taldeak irabazi zuen, Maritxalar bera (3.) eta Antonio Bru beratarren (5.) laguntzaz.

❖ Mungiaiko

XLIII. Eguberrietako Torneoa irabazi zuten afizionatu mailan Olaizola goizuetarrak eta Barriola leitzarrak, finalean Ketxu eta Tejerori 22-20 irabazi ondotik.

❖ Julian Retegi

da eskualdeko ordezkari bakarra Espainiako eskuz binakako txapelketaren finalerdietan.

Arrakastatsua izan da Gabonetako Berako Futbito Txapelketaren lehen edizioa

Iazko abenduan jokatu zen lehen aldikotz Beran Gabonetako Futbito Txapelketa. Guztira 16 talde bildu ziren, 12 mutilenak eta 4 neskenak. Mutilen torneoan, kanporaketak jokatu ondotik, Rantanplán eta Alferrak ekipoak ailetu ziren finalera. Azken emaitza 5-1 izan zen Rantanplánen alde, txapelketa honetako irabazle suertatuz. Hirugarren postua Türtti taldearentzat izan zen. Nesketan berriz, Huracán taldeak lortu zuen garai-pena, finalean Palmeiras taldeari 5-4 irabazi eta gero. Izan duen arrakasta ikusirik, antolatzaileek heldu den urtean errepikatzeko asmoa agertu dute.

pelketa honetako irabazle suertatuz. Hirugarren postua Türtti taldearentzat izan zen. Nesketan berriz, Huracán taldeak lortu zuen garai-pena, finalean Palmeiras taldeari 5-4 irabazi eta gero. Izan duen arrakasta ikusirik, antolatzaileek heldu den urtean errepikatzeko asmoa agertu dute.



Mutilen torneoko irabazleak antolatzaileen eskutik sariak jasotzen

DATUAK.....

1 Patrizia Leiza 21 urteko elizondarra da.

2 Aitzinetik patinatzen, eskubaloian eta gisako kirolean aritu bazen ere, orain hiru urte hasi zen piraguan, kanoan eta rafting egiten, BKZn egindako ikastaro baten bidez.

3 Berriki Zimbaweko (Afrika) Zanbeze erreka -munduko zailenetako bat- jautsi du.

4 Guztira 200 kilometro egin ditu eta esperientzia arras aberasgarria izan dela pentsatzen du.


5 Bertze hiru lagunekin batera gan zen Afrika aldera.

Patrizia LEIZA Elizondoko kirolaria

"Zanbeze erreka jausteko indarra eta zorte pixka bat behar izan dut"

Zanbeze erreka jausteko duen zailtasunaz jabetzeko, 5. graduan sailkatua dagoela erran behar da eta 6. graduako errekek zeharkaezinak dira. "Zanbezere zailtasuna bere kaudalean dago: segunduko 1.500 metro kubikoko ur-eto- rria du. Hemen ere erreka zailak badaude, igual arriskutsuagoak, baina harri gehiago dituzte-lako" dio Patrizia Leiza elizondarrak. Ezzen hori zailtasun bakarra izan, ordea, lehenengo egunetik kokodriloak izan baitzuten inguruan. "Lehenengo egunean itikiak ikusten ziren, baina hurrengo egunetan nahiko haundiak. Erreka laku batean bukatzen da eta lau egun kanoan egin genuen eta han haundi-haundiak eta ondoan ikusten dituzu, hipopotamoak bezalaxe".

Halere ez zaio Patriziari "arrisku kirol" izendapena batere gus- tatzen. "Arriskua norberak paratzen dio: he- men igual 4. gradu-ko erreka bat ez duzu egi- ten, arrisku gehiago ikusten duzulako. Han indarra zen bakarrik eta suertea ere izan dut. Goitiko partean, rafting egiten aunitz erortzen zara, baina piraguan gaten zarelarik ezin za- ra erori, korrontek



«Aurten Nepal, Costa Rica edo Txilera joanen naiz rafting egitera»

arroken kontra erama- teko arriskua baitago".

ZORTZI EGUNEKO JAUSIERA

Victoria Falls izene- ko ur-jauzitik hasi eta 200 bat kilometro egin zituen Patriziak. "Erdia baino gehiago rafting eginez jautsi genuen zortzi lagunek, hemen-

dik joandako lau eta hango agentzia batean gurekin paratu zituzten bertze batzuk. Gero pi- raguan 40 bat kilome- tro egin nituen nik ba- karrik eta lehen aipatu bezala, kanoan bertze horrenbertze".

Guztira, zortzi egu- neko esperientzia izan da, nahiz eta gero, ia bi hilabetez bertan egon diren inguru hura ezagu- tzen. "Esperientzia guz- tia ona izan da neretzat, arras polite. Hainber- tze denbora kanpoan

egin dudan lehen aldia izan da. Kultura, bizi- modua... dena ezberdi- na da. Zerbait negati- boa erratekotan hiz- kuntza ez menperatzea, akaso. Bereak inglesa solasten zuten eta guk guttienekoa bertzerik ez genekien. Arras inpor- tantea dela konturatu gara". Urte honetarako asmoak ere garbi ditu Elizondoko neskek. "Urte guzian aurrera- tu eta seguraski, Nepal, Costa Rica edo Txilera joanen naiz". ■

► "Kirol hauei arriskua norberak paratzen dio: hemen igual maila ttikiagoko erreka bat ez duzu egiten, arrisku gehiago ikusten diozulako, arrokak direla eta."

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
PATRIZIA LEITZAK UTZIAK

AGENDA EGUNEZ EGUN

INAUTERIAK

ITUREN

► **Urtarrilaren 27 eta 28an.**

ZUBIETA

► **Urtarrilaren 27 eta 28an.**

LEITZA

► **Urtarrilaren 25etik 28ra.**
Xehetasunak 21. orrialdean.

SAN ANTON

ELIZONDO

► **Urtarrilaren 17an**
Ganadu feria eta urteroko zozketa Baztango Zaharretxearen alde (behi bat, zerria, 2 bildots eta urdaiazpikoa).

LESAKA

► **Urtarrilaren 17an eta 19an** San Antongo ermitara erromeria izanen da.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Urtarrilaren 17an**
Gaueko 10,30etan Kasinoan 'De la Dauve' Iparraldeko taldearen kontzertua.

► **Urtarrilaren 24an**
Gaueko 10,30etan Kasinoan 'Amor a traicion' pop taldearen kontzertua.

► **Urtarrilaren 17an**
Gaueko 10,30etan Kasinoan 'Mixtura fina' Italiako samba taldearen kontzertua.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.400 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 170 pta/kilo
- **Zerramak**: 125-130 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pza./kg. Kanal
- | | |
|-------|----------|
| Extra |500 |
| 1.koa |490 |
| 2.koa |480 |

- **Urruxak:** Pza./kg. Kanal
- | | |
|-------|----------|
| Extra |520 |
| 1.koa |500 |
| 2.koa |480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- **Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 23.000 Pta.

• **Mestizoak:** urruxak 24.000 eta idixkoak 36.000 Pta.

- **Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 340 Pza./Kg. Kanal.
- Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Iñauteriak: Leitza, Orabidea, Ituren, zubieta, Sunbilla...

Urte hasiberri dugun honetan urtero-urtero errepikatzen diren besta egun eder hoiek heldu zaizkigu: Iñauteriak.

Hilbeltzaren azken astelehen eta asteartearekin batera etorri ohi dira Zubietta eta Iturengo iñauteak, aurten 27 eta 28. egunekin. Kanpotar ugari hurbilduko dira bertara, joaldunen joan-etorri eta gaitzaren ospakizunetaz gozatu asmoz. Bertetik, Sunbillan ere bestak izanen dituzte hilaren 24tik

26ra, eta baita Leitzaan ere, 25etik 28ra hain xuxen ere. Hainbertzako sona ez dutenak Orabidea auzo baztandarrereko iñauteriak dira, urteko bigarren astean ospatzen direnak. Abudo edo beranduxeago, gure auzo eta herriak musika, dantza, karroza eta mozorroz beteko dituzte iñauteriek. Ahalik eta hobekien pasa!



Ituren eta Zubietako joaldunek aurten ere herri batetik bertzerako bidea eginen dute, joareak astinduz

DISKAK



«MO' MAU»
MO' MAU
TX argitaletxea

Jazz eta rock doinu apartak bildu dituzte MO' MAU taldekoek beraien estraineko diska honetan. Bost kanta soilik grabatu dituzten arren kalitate handiko diskoa osatu dute. Taldeko partaideek eginak dira kanta guztiak eta baita letrak ere. Maila handiko musi-

kariak biltzen ditu talde honenak: Juanjo Falcon baxuan, J.C. Labaka kitarran, Javi Area baterian, Satur Babon saxoan, Juanan Diez tronboian, Mikel Valcarlos tronpetan, Gorka Lasa teklatuetan eta Ane Irazu ahotsetan. Musika munduan esperientzia handiko jendea.

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

Kasu eman jubilatuen bidaietan

Azken urteotan, jubilatuen ahalmen ekonomikoa goiti joan da, adineko pertsonen aisialdia edo denbora librean gastatzen duten dirua inoiz baino haundiagoa izanik. Horren ondorio nabarmenetako bat jubilatuen bidaiak ditugu eta berexiki zenbait produktu saltzeko asmoz bidai agentziek nahiz produktu saltzaileek antolatzen dituztenak.

Izan ere, etxetik ateratzearekin kontent agertzen diren jubilatuen eskerroneko jarreraz baliatuz eta osasun-garria dela edo inon ez dutela horren merke aurkituko argudiatuz mota guzietako produktuak saltzen dizkiete zenbait enpresek.

NOLA EGITEN DUTE?

Saltzearen egiten dituzten trikimailuak ugari badira ere jubilatuentzako zuzentzen diren eskeintzetan honelakoak erraten dizkiete gehienbat: «Lantegian baino merkeago inon ez dutela aurkituko», «produktu hobereana erosteko aukera paregabea dagoela» edota «mina kentzeko sendagairik one-



Saltzaileak edozein trikimailu edo azpijoko erabiltzeko gai dira jubilatuei beren produktuak saltzekotan.

na dela» osasunerako produktua baldin bada.

Helburu berberarekin erabiltzen dituzte guziz salagarriak diren azpijokoak: Bileran luze bezain nekagarriak, bileran parte hartzen dutenen artean engainatzeko asmoz kokatzen diren saltzaileak eta abar...

Produktuen frogatu gabeko ezaugarriak aipatuz gezurrekin ibiltzeaz gain ohikoa da erosi behar dugunaren ezaugarriak eta prezioa parekatzeko aukerarik ez ematea, eta jakina, hala izanez gero hobe dugu ez erostea!

Kontsumitzaileen esku-bideak zapalduz ez dute ez kontraturik, ez publizitate-rik, ez inolako bermerik eskeintzen, produktua eroste-

ko behar dugun denbora ahalik eta gehien murrizten saiatzen dira.

KONTUTAN HARTZEKOAK

Erosi aurretik, pentsatu, produktuaren prezioa parekatu, ezaugarriak egiaztatu, eta gainerako gastuetaz galdegin. Erosen dugunaren dokumentazio guziaz eskatu, erreklamatzekotan behar-beharrezkoa da eta. Kontsumitzaileak bertan bera utz dezake kontratua, produktua erosi eta zazpi egunetan, legeak dioenez. Horretarako, telegrama edo eskutitz zertifikatua bidali behar da.

IRATXE KONTSUMITZAILEEN
ELKARTEA

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

DONEZTEBE

- **Urtarrilaren 18 eta 19an** 'Lago Ness'
- **Urtarrilaren 25 eta 26an** 'Desperado'

LEITZA

- **Urtarrilaren 17 eta 19an** 'Pena de Muerte'
- **Urtarrilaren 19an** 'En busca del valle encantado'

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

- **Urtarrilaren 19an** Azaldegira joanen dira Baztango mendigoizaleak. Ibilbidea: Elizondo-Bailen-Urballo-Azaldegi-Harrikulunka-Urballo-Elizondo.
- **Urtarrilaren 26an** Etxalarrera joanen dira Baztango mendigoizaleak. Ibilbidea: Eskisaro-i-Usategieta-Etxalar-Eskisaro-i.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

- **Urtarrilaren 13tik 19ra** Bera, Sunbilla Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Goizueta
- **Urtarrilaren 20tik 26ra** Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza, Goizueta.
- **Urtarrilaren 27tik, Otsailaren 2ra** Arantzeta, NARBATE, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

LIBURUAK



«Kalamidadeen liburua»
Joan Mari IRIGOIEN
ELKAR, 314 orrialde

«Kalamidadeen liburua» izenburupean Joan Mari Irigoienek bere azken lana ezagutzera eman du ELKAR argitaletxearen eskutik. Euskal literaturan ibilbide luzea egina du dagoeneko Joan Mari Irigoienek. Seigarren eleberria du honakoa, baina baditu bi poema liburu eta baita haur eta gazteentzat bertze hiru ere. Li-

buru honekin, orain arteko bere lanen moldeak hautsi ditu donostiarrek. Pertsonaia xelebreak aurkezten dizkigu liburuan, komedia gisako istorio txoro bat osatuz. Gizartearen gaineko fartsa sano, lotsagabe eta kritikoa da. Ilustrazioak Olariaga marrazkilari ezagunak eginak direla erran behar da, azkenik. (ARGIA)

HIGIEZINAK SALTZEKO

- 101. Etxeak
- 102. Etxebizitzak
- 103. Baserriak
- 104. Txaletak
- 105. Apartamentuak
- 106. Merkataritza-lokalak
- 107. Garajeak
- 108. Lurrak/orubeak

HIGIEZINAK EROSTEKO

- 111. Etxeak
- 112. Etxebizitzak
- 113. Baserriak
- 114. Txaletak
- 115. Apartamentuak
- 116. Merkataritza-lokalak
- 117. Garajeak
- 118. Lurrak/orubeak

ESKUALDATZEAK

- 121. Merkataritza-lokalak
- 122. Bertzelakoak
- 131. Etxeak

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ERRENTAN HARTZEKO

- 132. Etxebizitzak
- 133. Baserriak
- 134. Merkataritza-lokalak
- 135. Lurrak/orubeak
- 136. Bertzelakoak
- 141. Etxeak

ERRENTAN EMATEKO

- 142. Etxebizitzak

- 143. Baserriak
- 144. Merkataritza-lokalak
- 145. Lurrak/orubeak
- 146. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak

- 206. Osasun arlokoak
- 207. Mendi lanak
- 208. Gestoriak
- 209. Garraioak
- 210. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Saldu
- 502. Erosi
- 503. Tailerrak
- 504. Bertzelakoak

ANIMALIAK

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Eman
- 604. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu/aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak
- 802. Deialdiak

HIGIEZINAK SALTZEKO

102 ETXEBIZITZAK

ETXALAR. Pisua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bainua eta trasteroa. Denak kanpoaldera ematen

du eta bizitzera sartzeko moduan. ☎ 635146.

IRUÑEA. Pisua salgai Ollite kalean. 80 m². Oso ongi dago. 14 milioi pezeta. ☎ 510167 (gauetan).

LEITZA. Pisu bat saldu eta beste bat errentan eman nahi dut. ☎ 510167.

LEITZA. Pisua salgai, oso ongi dago. 10 milioi pezeta. ☎ 234830.

ARANTZA. Baserrira salgai, lur eremu eta pinadiarekin. Bizitzera joateko moduan dago. ☎ 943-633482. Joseba.

ERRENTAN EMATEKO

142 ETXEBIZITZAK

ITUREN. Etxea errentan emateko. ☎ 943-286685.

MALERREKA-BAZTAN. Etxe bat errentan hartu edo

erosiko genuke. Premia larria. ☎ 451746 - 393067.

ERRENTAN EMATEKO

144 MERKATARITZA-LOKALAK

LESACA. Bi garaje plaza



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskaratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegoetik.

Sail hau dohanekoa da.

Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa

Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA



Urtzi Elgorriaga Tombo beratarrak 11 urte egin ditu urtaririlen 12an. Zorionak aita, ama, arreba eta amaxiren partez.



Jabier Indaburu etxalararrak, 65 urte beteko ditu hilbeltzaren 25ean. Zorionak familiaren partez.



Olaia eta Naiara Fresneda Lopez burlatarrak urte bat beteko dute urtaririlik 30ean. Zorionak guraso eta Leitzako laguneren partez.



Jose Mari Mascoleña Jaurena urdazubitarrak 25 urte bete ditu urtaririlen 12an. Zorionak zure pitxitxiren partez.



Izaskun Miura Ariztia urdazubiarrak 19 urte bete zituen abenduaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat koadrillakoen partez.



Arantxa Mugika Tomasena urdazubiarrak abenduaren 23an 19 urte bete zituen. Zorionak eta muxu haundi bat koadrillakoen partez.



Beatriz Mascoleña Jaurena urdazubiarrak 26 urte beteko ditu urtaririlen 31an. Zorionak eta muxu bat.



Edurne Zabaleta Sasturain leitzarrek urtaririlen 13an bete ditu 3 urte. Zorionak eta muxu haundi bat Maxuxen partez.



Estitxu Zelaieta Fagoaga beratarrek 10 urte eginen ditu urtaririlen 19an. Zorionak neskatxa alai. Zure laguneren partez.



Eneko Jaunsaras Migeltorena almozotzarrak 4 urte bete ditu urtaririlen 3an. Zorionak eta muxu bat Asier eta bere gurasoen partez.



Amaia Mascoleña Jaurena urdazubitarrak 22 urte bete ditu urtaririlen 20an. Zorionak eta muxu bat.



Lidia Indakoetxea Lukanbio arantzarrak 3 urte bete ditu urtaririlen 4ean. Zorionak aita, ama eta Taniaren partez muxu haundi bat.



Xabier Iturria Arburua etxalararrak 25 urte bete ditu urtaririlik 5ean. Zorionak familia, Oier eta Mireiaren partez.



Iñaki Iturria Arburua etxalararrak 28 urte bete ditu urtaririlen 4an. Zorionak familia, Oier eta Mireiaren partez.



Mª Luisa Sorozabal Arretxea «Api» arretxerak urtaririlen 11ean urteak beteko ditu. Zorionak.

errentan ematen dira, Al-
bistur karrikan. ☎ 637820.

DONEZTEBE. Lokala
errentan emateko herri er-
dian. 25 m². ☎ 943-286685.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

**ARANTZA
ZVRGINDEGIA**

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako
zurgin lanak

Osifa auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

210 BERTZELAKOAK

**M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA**

NEURKETA • PLANOAK

Lur neurketak, Luberririk
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 989.445986

Santiago 68. 3. esk. ELIZONDO

LANA

301 ESKARIAK

Emakume bat edozein lan-
netan arituko litzateke Le-
saka inguruan, haurrak
zaintzen edo etxe lanak
egiten hobe. ☎ 637825.

URDAZUBI. Neska bat beh-
ar da Ikaburua jatetxean
martxotik aitzinerat lan egi-
teko. ☎ 599222

27 urteko neska batek
edozein lanetan arituko
litzateke; adinekoak eta
haurrak zaintzen edo etxe-
ko lanetan. Arduratsua naiz.
Lourdes. ☎ 637749.

**SAMPI
ARAGON**

Bigarren eskuko autoak salgai.
Renault 21 D., Peugeot 106,
Ibiza, Seat Cordoba D., Fiat Uno,
Golf GTD.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

MOTORRA

501 SALDU

BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:
Nissan Patrol, NA-P
Nissan Patrol SS-T
Citroen BX TRD ABS haize
egokituarekin, SS-AC
R-11 GTD, SS-V

Nissan Primera diesela
salgai. NA-AG. ☎ 451504

Opel Kadet 1.600 L.S. sal-
gai. 75.000 km. NA-Z. ☎
610609.

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Astra GSI, Corsa GSI, R-S,
Suzuki vitara labur eta luzeak,
Land Rover arina
Tapizeriak garbitzen ditugu.

ANIMALIAK

601 SALDU

Zakur arra salgai, bi urte-
koa. Txuria eta marroia.
Konpainia egiteko egokia.
Hagitz goxoa. ☎ 634128.

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia,
pentsuak eta osagarriak
☎ 627660 LESAKA



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldekoa.
- Etxe zoragarria salgai.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

LESAKA.

- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua.
- Etxe elkarri atxikiak salgai. Familiabakarrekoak.

ETXALAR.

- Pisu bat errentan emateko.
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.

IRURITA.

- 140 m²ko etxea salgai.
- 350 m²ko etxea salgai.

ELIZONDO.

- Pisu merkea salgai.
- Pisu berria salgai (Braulio Iriarte karrikan).
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Etxeak egiteko lur eremua salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

ORONÓZ-MUGAIRI.

- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Pisu bat errentan eman nahi da. Ongi dago.
- Oskorri liburudenda salgai.

LEGASA.

- Pisu salgai.

NARBARTE.

- Pisu haundi bat errentan emateko prest.
- Pisu erabilia salgai. Arras merkea.
- Pisu berria salgai.

DONAMARIA (IGURIN).

- Txaleta salgai.

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Pisu salgai.

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere.
Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonok: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

- Lur eremuak salgai.
- 30 m²ko bajera errentan ematen da.

URROTZ.

- Baserria errentan ematen da.

ELGORRIAGA.

- Pisu eder eta berria salgai, garajearekin.
- Familia batendako etxea errentan edo salgai.

ITUREN.

- Etxe eder bat bere lur eremuarekin salgai.
- Etxe bat bere 1000 m²ko lorategiarekin errentan eman nahi da.

ZUBIETA.

- Borda bat errentan eman nahi da.
- Azken bi pisu berriak salgai.

ERATSUN.

- Baserria salgai.

LEITZA.

- Pisu salgai.

ARESO.

- Baserria salgai.

Igeltsero, iturgin,
elektrizista, zurgin
eta pintoreak
ditugu zure
zerbitzura.
Etxe-aldairak ere
egiten dira, edozein
egunetan.

PREMIAZKOAK (EROSTEKO)

- Zugarramurdi, Udazubi edo Etxalarren
baserri edo etxe bat (25 milioi inguru).

AUKERAK

- Oskorri liburudenda
- Legasako pisua 6.000.000 Pta. negoziag.
- Zubietako azken pisuak 8.000.000 Pta.
- Lesakako bajera 7.000.000 Pta.
- Elizondoko unifamiliar eta bifamiliarak
- Narbarteko pisu berria 9.500.000 Pta.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Judo-Aikido edo Jiu-jitsu
egiteko trajea salgai, ia-ia
berria. 5.000 pezeta. ☎
234830.

Irratikaseta, MX Honda
markakoa, salgai, 7.000 pe-
zetan. ☎ 234830.

Obretako kablea salgai.
AC/Acrilon. 9,6 / 1Kv. 110
metro luze. ☎ 453335.

Hiru eski-bota pare sal-
gai. 41 eta 43 neurrikoak,

mendirako eta snowboard
egiteko. Bertzea, 41ekoa
eski alpino egiteko. ☎
630466 Jose M^{te}.

**Gaztain eta haritz ameri-
kano** plantak salgai. ☎
450888. Eguerd-arrratsa.

22ko riflea salgai. Mira te-
leskopikoa eta osagarri
gehiagorekin. ☎ 637432.

Baratza egiteko lurra beh-
ar dut errentan. ☎ 943-
557619.

Konsumo estufa erosiko
nuke ☎ 451841

Su-egurra salgai. Etxerai-
no eramanen dizugu. ☎

908.227212
80 w-tako amplifikadorea
salgai, Marshall valvesta-
te 8080 markakoa. 45.000
pezeta. ☎ 630090. Xabi.

**300 l.tako Arcon izozkai-
lua** salgai. 25.000 pzeta. la-
ia berria. ☎ 631296

HARREMANAK

801 AGURRAK

Gidari guztie! Kontuz ibili
Ainhua Urregaik gida-bai-
mena atera du. Aio!



URTEBETETZEAK

Sail hau dohanekoa da.
Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Manuel Telletxea Iparragirre igantziarrak abenduaren 11n bete ditu urteak. Aunitz artez Eukene, Markel eta familiaren partetik.



Gaizka Oteiza Migeltorena oronoztarrak, abenduaren 18an bete du urte bat. Zorionak bere guraso eta familiaren partez.



Gabriela Manterola Arbelaitz lesakarrak 54 urte bete ditu abenduaren 21ean. Zorionak bere familiaren partetik



Maritxu Zubieta Manterola lesakarrak 30 urte bete ditu abenduaren 22an. Zorionak bere familia, alaba eta gizonaren partetik.



Juanito Leonet Claver aranoarrak abenduaren 27an 33 urte bete ditu. Zorionak Aranoko lagunaren partez.



Eneritz Ioiarte Zubieta goizuetarrak urtarrilaren 2an bete ditu urteak. Zorionak zure familiaren partez.



Iasone Susperregi Arbelaitz lesakarrak abenduaren 22an 10 urte bete ditu. Zorionak familia guziaren partez.



Eneko Costa Ibargoien beratarrrak abenduak 28an bete ditu 7 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partez.



Amaia Alzuguren Mitxelena 3 urte beteko ditu urtarrilaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat bere gurasoen partetik.



Amets Albertos Kurralde elizondorarrak urtarrilaren 8an 5 urte bete ditu. Zorionak!



Javier Artola Mazo leitzarrak 3 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak guraso, aitona eta anaiairen partetik.



Lourdes Mendiburu Bidart azpilkuetarrak 20 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak eta aunitz urtez. Zure betiko laguna. S/L.



Ibai Iribarren Larretxea urrozotarrak urtea bete du abenduaren 23an. Zorionak denen partetik.



Kristina Olazar Apeztegia elgorriarrak 28 urte bete ditu abenduaren 27an. Zorionak Endika eta Mattin semeen eta senarraren partez...



Josu Telletxea Garmendia donamariarrak 4 urte bete ditu urtarrilaren 13an. Zorionak bere guraso eta familiaren partez. Muxu bat.



Beller Carrillo Ruiz beratarrrak 24 urte bete ditu abenduaren 27an. Zorionak "Belentxo". ???ren partez.



Mª Karmen Korta Endara beratarrrak 24 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak "Berritsu", koadrilaren partez.



Josune Irastorza Alzuguren beratarrrak 21 urte bete ditu abenduaren 31n. Koadrilaren eta familiaren partez, zorionak.



Julen Galañena Otxandorena leitzarrak urtea bete du abenduaren 31n. Iñaki eta Gorettiren partetik, urte berri on eta zorionak.



Nerea Bazterrika Loiarde zubiatarrrak 2 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak Doneztebeko osaba-izeba Joxe eta Paularen partez.



Eila Altzugarai Arakues lesakarrak 9 urte bete ditu hilbetzaren 6an. Zorionak Zumar, aita eta amaren partez. Aupa, pottoka...!



Belen Guerra Irigoien igantziarrak 29 urte bete ditu abenduaren 29an. Zorionak bere familiaren partez.



Josune Irungarai Jubera azpilkuetarrak abenduaren 24ean bete ditu 8 urte. Zorionak familia guziaren partez. Musuak.



Iñigo Mitxelena Arriada lesakarrak 10 urte bete ditu urtarrilaren 14ean. Zorionak gurasoen eta Josune, Laura eta Usoa aizpen partez.



Maddi Halty Agueralde urdazubitarrak abenduaren 23an 2 urte bete ditu. Zorionak bere familia guziaren partez.



Sebastian Antxordoki Bereau igantziarrak urtarrilaren 16an 16 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partez.



Xabier Elizalde Osoz itundarrak 12 urte bete ditu urtarrilaren 3an. Zorionak guraso, osaba eta ataxkiren partez. Egun on bat pasa.



Ander Olaizola Etxegarai lesakarrak 5 urte bete ditu urtarrilaren 9an. Zorionak bere anaia Ion eta gurasoen partez.



Iker Altzugarai Zubiri lesakarrak urtarrilaren 15ean 4 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta Aitorren partez.



Aritz Zubiri Gamio goizuetarrak urtarrilaren 5ean 10 urte bete ditu. Zorionak amona eta osaba-izeben partez.



Aintzane Ramos Eskudero iruritakoak urtarrilaren 15ean 13 urte bete ditu. Zorionak osaba-izeba eta lehengusinarekin partez.



Ohiana Altzugarai Ramos beratarrrak, 6 urte bete ditu urtarrilaren 12an. Zorionak gurasoen partez.

Daniel Bertiz sunbildarrak 20 urte bete ditu abenduaren 31ean. Zorionak eta txanpaina kopa batetara gonbidatu. Hau sua!
Zorionak, Amaia Otxoteko,

zaren bezalakoa izateagatik. Patxiren partez.
Zorionak Lesakako Idoia T.ri bere urtebetetzeari urtarrilak 2. Zorionak zure 20 urteengatik eta urte berri

on. Zure lagunak.
Berako Begoña Caballerori: Zure ile gorri hori asko gustatzen zait. Ikusi zintudanetik ezin zaitut burutik kendu. Asko maite zai-

tut. Zure atzetik dabilen mutil baten partez.
Goizuetako Maite Alsuarri zorionak bere urtebetetzeari, abenduak 23, bere gelako Itziar, Garbiñe, M^a

Jose eta Maiteren partez. Muxu haundi bat.
Igantziko Aietz eta Imanoleri, hagitz onak zaude-te.

ORDOKI ALTZARIAK

estilo guzietako mobleak

eskeintza
berezia




Kalitatea prezio egokian

- *Modelo-berritzea dugula-eta, prezioak jautsi ditugu*
- *Logelak*
- *Egongelak*
- *Tresilloak, etab...*

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Pareta-armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, alasa, besaulki, etabarretan aukera zabala
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

 **631188**

Laguntza Eskaria P.A.C.

Nekazariak



Abeltzainak



Tramitatu itzazu gure bulegoetan

Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin

GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA